

Arrasate

P R E S S

1997ko
urtarrilak 31
349. zenb.

Asko dira azkenaldian Karibetik etorritako neskak


Mondragoera ezkondu

IRITZIA: DEUNORO OTERO • **KULTURA:** SERGIO LEKUONA
IKUSPEGIA: IBAN DEL CAMPO • **30 GALDERATAN:** MARGA MERKADER

Mondeo berria

Hau da agintea!

*Inurrategi anaiek ere
Mondeo berria aukeratu
dute.*



M MUGARRI

Araba Etorbidea, z/g • ARRASATE • Tel.: 79 07 44 / 54 • Faxa: 79 62 54

Zarata zaparrada

Orokortzea ez da nire gustokoa, baina kontraesanean jaustea bai, beraz orokortzera noa: zarataren belaunaldian bizi gara, eta ez Interneteko "nabigari" eskizofrenikoenean.

Lerro hauen irakurketa isilpean izatea atsegingo nuke. Hala ere, konturatzen naiz kontraesanean murgiltzen naizela isiltasuna eskatzerakoan, momentu honetan nik zarata dudalako sintoniaz.

Beti gaude zarataren menpe; batzutan berarekin topatzeko irrikitan, eta bestetan berarengandik ihes egiteko modurik aurkitu ezinik.

Zergatik ote izurrite zaratatsu honenganako menpekotasuna?

Zoritxarez isiltasunak ez ditu geure buruan



Iban del Campo

konnotapen positiboegiak. Isiltasunak gauarekin pareja ederra osatzen du, zaratak egunarekin bezala. Iluntasuna eta argia. Arriskua edo oreka. Filme askotan pertsonaia isilak hiltzaileak edo gaizkileak izaten dira, nahiz eta aldi berean interesgarrienak suertatu.

Isiltasuna, iluntasuna bezala beldurgarri eta arriskutsua zaigu; hau da, gure osotasunarentzat guztiz desegokia.

Nola ez gaitu isiltasunak beldurtuko, pertsona hil baten oroitapenean isiltasun minutu bat eskatzen denean?

Gutziz makabroa iruditzen zait isiltasunaren erabilpen hori, eta zaratarena berriz gehiegizkoa. Arrazoi hauengatik zarataren

"Isiltasuna, iluntasuna bezala beldurgarri eta arriskutsua zaigu; hau da, gure osotasunarentzat guztiz desegokia"

eskutan, isiltasunean baino erosoago aurkitzen gara.

Baina isiltasunak badu ere bere edertasuna. Momentu sakon edo intentsuagoak bizi izan ditut berari esker. Nola ez, zarata edo soinuekin momentu zoragarriak gozatu ditut. Bizitza ez litzateke hain bizia izango musikarik gabe. Egokiena beraz, isiltasuna soinu ederrekin apaintzea izan liteke. Momentu isilak zaratatsuak bezain alai bizitzea lortzen duenak, alaitasunean puntu asko irabaziko ditu. Zergatik egon kezkatuago isiltasunean, Donostiako tanborradan baino? Zergatik urduritu isiltasunean?

Irrikitan nago Balentzian hain gogoko dituzten "mascletá" zaratatsu horietako bat bizitzeko, ea asetzen naizen.

Baina interesgarria izango litzateke entzumen gaudio baino lehenago, isiltasunari egun berezi bat eskaintzea, giza eskubideen antzera. ■

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Behardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publikatzailea:** Alberto Garro, Kaitlin Allende (Tfnoa: 77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15). **Diseinua:** Golo Arana.

Kolaboratzaileak: Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Itxaro Arriola, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Ordoibengo, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Salla, ASA taldea, Sabin Arrieta, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Uribebarren, Fidel Berezbar, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kopti, Jon Ozaeta, Birginitia Urkiola, Jabi Luengo, Maite Barneña.

Banaketa arduraduna: Jasone Mendizabal-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tfnoa: 6 200. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gerku Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldi-zikarioan adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Golo Arana.

Arrasateko Udaleren laguntzaz
Gipuzkoako Foru Aldundia-aren laguntzaz
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz

349. zenbaki honetan

1997ko urtarrilaren 31n

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen	10/12	Kulturaren txokoa	26/27
Irakurlea idazle	6	Txutxumtxuak.....	15/16	Azoka plaza	28/29
Inkesta.....	7	Asteko gaia	17/19	Lapiko handia	31
Astearen erreposoa.....	9	Kirolak jokoan.....	20/23	Foto zaharra	34

Ikuspegia
Iban del Campo **3**

Euren ikuspuntutik
Deunoro Otero **8**

Hogeita hamar galderatan
Marga Arkauz **30**

Aurrez aurre
Fernando Gomez-Acedo **24/25**

Asteko gaia
Karibetik Arrasatera bizi izatera etorri direnen esperientzia **17/19**

Martina Drullard, Rocio Vargas eta Zumaya Rodriguez.

31

ostirala

■ ZINEA

La brigada del sombrero Alai zineman 7etan eta 10etan.

■ BOXEOA

Boxeo jaialdia Musakolako kiroldegian gaueko 10.45etan. Amalio Galan, Santiago Galan, Antonio Caballero eta Jose Grilleri omenaldia egingo zaie. Fernando Garcia gazte arrasaterak parte hartuko du.

1

larunbata

■ ZINEA

Secretos y Mentiras Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ GOIKOBALU TXIKI

Goikobalu Txiki abesbatzako partaide izan nahi duten bederatzi urtetik aurrerako neska mutilek, zita izango dute Gazteluondon arratsaldeko 4etan. Ahots frogak egingo dira partaide berriak hartzeko.

2

igandea

■ ZINEA

Secretos y Mentiras Alai zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

4

asteartea

■ ZINEA

Secretos y Mentiras Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ HITZALDIA

San Viator ikastolak antolatuta, 12-18 urteko seme-alabak dituzten gurasoendako "Sexualitatea Gazteengan" hitzaldia arratsaldeko 6etan San Viator ikastolako aretoan.

3

astelehena

■ ZINEA

Secretos y Mentiras Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ BILERA INFORMATIBOA

HEZIBIDEk antolatuta, Derrigorrezko Hezkuntzaren matrikulazioari buruzko *Zatoz Ezagutzera* kanpainaren barruan, bilera informatiboa San Viator Txiki ikastolan 17.45etan euskaraz eta 19.00etan erdaraz.

■ SAN BLAS EGUNA

Aretxabaletako Sailuenteako ermitan meza izango da goizean.

5

asteazkena

■ HITZALDIA

12-18 urteko seme-alabak dituzten gurasoendako "Elkaduraren aurreko gazteen jarrera: Anorexia" hitzaldia arratsaldeko 6etan San Viator ikastolako aretoan.

■ SANTA AGEDA EGUNA

Santa Ageda koruak base-rietatik eta kaletik ibiliko dira kantuan egunean zehar.

LAN POLTSA

Arrasateko Udalak, aldi baterako eta egun erdiz, "Langai" zerbitzuan aritu dadin, kontratazio hau egin nahi du:

- **Elkarrizketatzailea.**

Oinarriak Udaletxean jaso daitezke. Izenak emateko epea otsailaren 7an, ostirala, bukatuko da.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Sailsa ■



ileapaindegia

Tel.: 79 37 88 • ARRASATE

6 osteguna

■ **ZINEA**

La Celestina Alai zine-
man 7etan eta 9.30etan.

■ **ZINE KLUBA**

Jonas y la ballena rosa-
da Amaia antzokian gaueko
9.30etan.

■ **HITZALDIA**

12-18 urteko seme-alabak
dituzten gurasoendako "Gaz-
teak eta droga mundua.
HIESA" hitzaldia arratsalde-
ko 6etan San Viator ikasto-
lako aretoan.

■ **HIRI BATZARRA**

Arrasateko Alkartetxean
Eusko Alkartasunaren ez ohi-
ko Hiri Batzarra egingo da
7.30etan.

■ **KORRIKA**

Korrika Batzordea sor-
tzeke bilera Monterronen
arratsaldeko 7etan.

■ **BILERA INFORMATIBOA**

HEZIBIDEk antolatuta,
Derrigorrezko Hezkuntzaren
matrikulazioari buruzko
Zatoz Ezagutzera kanpainan
barruan, bilera informa-
tiboia Almen ikastolan
17.45etan euskaraz eta
19.00etan erdaraz.

■ **KANTU ETA DANTZA
IKASTAROAK**

EKIN emakume
taldeak euskal dantzen,
saloi dantzen eta euskal
kanten ikastaroak
antolatu ditu. Euskal
dantzen ikastaroa San
Andresko alkatetzan
asteazkenetan 3etatik
5ak arte izango da; saloi
dantzena asteartetan
3.15etan Pablo Urangako
egoitzan eta euskal
kantena asteartetan
5.30etan Pablo Urangan
ere. Izena emateko 77 12
28 telefonora deitu behar
da arratsaldez.

■ **MARTXOAK 8
KARTEL LEHIAKETA**

Emakume sailak
Martxoaren 8rako kartel
lehiaketa antolatu du.
Kartelen neurriak gehie-
nez 50 x 70 zentimetroko-
ak izango behar dira eta
teknika librea da. Karte-
lek derrigorrez "Martxoak
8: 365 egun" testua
eraman beharko dute eta
baita Emakume sailaren
logotipoa. Kartelak
otsailaren 18a baino
lehen bidali behar dira
Udaletxera, bertako
Emakume Sailera eta
egun berean bilduko da
epaimahaia irabazlea
aukeratzeko. Saridunak
50.000 pta. etxeratuko
ditu.

■ **IKUSENTZUNEZKOA**

Otsailaren 3an
Inurrategi anaien *Kang-
chenjunga* eta *Shisha
Pangma* ikusentzunezko-
ak ikusi ahal izango dira
Amaia antzokian arratsal-
deko 8etan. Sarrera
dohainekoa izango da.

■ **KORRIKA**

Otsailaren 6an Korrika
Batzordea sortzeke bilera
egingo da Monterronen
arratsaldeko 7etan.

Otsailaren 7an berriz,
Korrikaren aurkezpena
egingo da. Aurkezpenaren
aurretik, arratsaldeko
7etan, "Kantu bat
Bekorentzat" pelikula
botako da. Pelikula
honek Zarauzko "Ere-
muak 95" lehiaketako
sari nagusia irabazi zuen.

■ **BOXEO JAIALDIA
KIROLDEGIAN**

Gaur gauean boxeo
jaialdia izango da Musa-
kolako kiroldegian
gaueko 10.45etan.
Bertan Amalio Galan,

Santiago Galan, Antonio
Caballero eta Jose Grille
omenduko dituzte.
Boxealariak berriz, hauek
izango dira bikoteka:
Fernando Garcia (arrasa-
tearra)-Raul Ruiz, Aitor
Vega-Saionde Soubar,
Arturo Terrazas-Patric
Arretxe, Ruben Saenz-
Justi Jimenez, Francisco
Galvez-Benito Roque.
Infantil mailako erakus-
taldi gisa Jose Antonio
Jimenez-Iker Sanchez
aritutuko dira. Sarrerak
1.000 eta 1.500 ptan
salduko dira sarreran.



■ **ATUN LATAK SAHARUIENDAKO**

Gobernuz kanpoko lau erakundek atun latak biltzeko
kanpaina hasiko dute Arrasaten otsailaren 3an, datorren
astelehenean. Atun latak
Saharan bizi diren errefu-
xiatuendako izango dira.
Kanpaina honetan lagundu
nahi dutenek, oliba olioizko
atun latak eraman beharko dituzte Arrasateko Udaltzain-
gora, goizeko 9etatik arratsaldeko 7etara. Atun latek 250
edo 300 gramokoak izan behar dute. Kanpaina hau
Euskal Herri guztian zabaldu da.

**Otsailaren 3tik aurrera
Udaltzaingoa.
Goizeko 9etatik
arratsaldeko 7etara.**

Sili Sili
**Martxa eta estilo
handiko erropa**
Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala 31**
 • Egunez eta gauez: Ruiz, Maala.
- Larunbata 1**
 • Gaueko 10ak arte: Morales, San Andres.
 • Gauez: Mozos, Bergara.
- Igandea 2**
 • Gaueko 10ak arte: Azkoaga, Ferrerías.
 • Gauez: Mozos, Bergara.
- Astelehena 3**
 • Gaueko 10ak arte: Español, Iturriotz.
 • Gauez: Camacho, Bergara.
- Astearte 4**
 • Gaueko 10ak arte: Corcuera, Musakola.
 • Gauez: Puy, Bergara.
- Asteazkena 5**
 • Gaueko 10ak arte: Irizar, Erguin.
 • Gauez: Guallar, Bergara.
- Osteguna 6**
 • Gaueko 10ak arte: Amezuza, Santamaina.
 • Gauez: Estella, Bergara.

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Iguatoriora 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua . . . 79 90 11
- Gurutze Gorria**
 Bergara 76 55 76
- DYA**
 Antzuola 76 62 91
- Anbulatorioak**
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria . . . 77 03 46
 • Espezialitateak 77 05 78
 77 12 64
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16
- Anbulantziak**
 Gipuzkoako ambulanziaz . . . 45 87 44
- Udaltzaingoa**
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 088
- Ertzaintza**
 Arrasate 79 71 99
- Suhiltzaileak**
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua . 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea . . 088
- Matxurak**
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (iberduero) . . . 12 01 62
 Gasak 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78
- Garraioak**
 Taxiak 79 12 22
 PESA 79 14 19
- Hirugarren adinekoendako zentruak**
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza . . . 79 81 57
- Kontsumitzailearendako informazioa**
 KIUB-OMIC 79 51 55
- Monterongo liburutegia**
 Monterron 77 01 05
- Irratia**
 Arrasate Irratia 79 58 77

KALE BORTIZKERIA!!

Aspaldi honetan komunikabideetan "gazteen biolentzia", Y taldeak eta honelakoei buruz berba eta orri asko hitzegin eta idatzi dira. Gehienetan politikoen kondena huts eta hipokritei ohiartzun publiko izugarria emanaz, herritarrengan iritzi bat sortu nahiean.

Baina ez gara Euskal Herrian ematen den kale borrokaren sorburu eta zergaiti politikoetaz mintzatu. Baizik azkenaldian euskal gaztedia pairatzen ari den errepresio jasangaitzaz erreflexio batzuk egin nahi genituzke; zeren eta Y taldeen muntaiaeri esker, asko izan dira atxilotu, torturatu eta espetxeratuak.

Arrasaten ere, dela euskal presoan Euskal Herriatzea eskatzeko, dela Arkau-

zen entrega ilegala salatze-ko kalean manifestatzen garenok biolentzia sufritzen dugu Atutxaren enkapatxatuen esku. Kale biolentzia eta prepotentzia berajasan zuten 15-18 urte bitarteko gazteek "pakezale" hauek klaustroetara sartu eta katxeatu, beldurtu eta humilatu zituzte-nean.

Nahiz eta komunikabideren batetan droga sarekada bat zela esan, ez gaitezen engaina! Hori bizi garen estatu polizial honen gaztediaren kontrol soziala da! Eta gazte hauen gurasoeek gertaera hau judizialki eta sozialki salatzea animatzen zaituztegu!

Arrasateko
 Amnistiaren Aldeko
 Komitea

LAGUNTZARAKO DA UNEA

Laguntzarako abagunea da. Baserri bat erre da Aramaion. Bentamotz dauka izena. Jabea, Eusebio, gizon jator bezain euskaltzalea, apal bezain atsegina. Ospitalean daroa sufrimendua.

Aramaio herriari dagokio laguntzarako ekimena. Eta inguruko herriek ere erantzun egin behar dute. Auzolana eta hurkoa laguntzea baitira gure ohiturarik onenetarikoak.

Besarkadarik anaikorrera zuri, Eusebio, eta zure familiari.

Jose L. Ormaetxea

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
 Boda eta banketeak

Tel.: 79 91 84

ARETXABALETA

Lore

Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE
 Tel.: 79 52 50

TTUKUN

Fotokopiak
 Enkuadernazioak
 Koloretan fotokopiak
 Planoen erreproduktzioa
 Offseta

Ferrerías, 23 • ARRASATE
 Tel.: 79 46 62

beatriz

oinetakoak
 eta poltsak

Erdiko kale, 11
 Tel.: 79 14 33
 ARRASATE

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
 eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
 ARRASATE
 Tel.: 79 98 94

HIES

EKIMENA

Astelehen, astearte
 eta ostiral
 Setatik 8etara.

Tel.: 79 26 99

M

Altzariak
 Diseinua
 Apainketa

ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
 Tel.: 79 08 07

UGARAN


jatetxea

Garagartza auzoa
 Tfnoa: 79 76 58
 ARRASATE

Memesa

79 42 22

Baduzu bizitza aseguratorik?



Francisco Vidriales
Jubilatua
(64 urte)

Bai, gutxienez orain dela 25 urtetik. Lagun Aroko pribatua daukat eta gero bizitzakoa.



Arantza Iriondo
Langilea
(33 urte)

Ez eta egia esan ez zait burutik pasatu ere. Ez dut horretan pentsatu.




Agapito Bedia
Langilea
(57 urte)

Bai, etxeko asegurua egin nuenean bizitzakoa ere egin nuen, orain dela hiru bat urte. Aseguruak beti ematen dizu lasaitasuna eta hil ezkeru emazteari zeozer geratuko zaio.



Francisca San Martin
Jubilatua
(64 urte)

Ez eta adin honetan bizitza aseguratorik egitea ez duela merezi uste dut, jubilatuta nago eta.




Iñaki Markuergiaga
Langilea
(36 urte)

Bai, orain dela bi urte egin nuen. Ezkonduta nago, semea daukat eta asegurua egitea komenigarria dela uste dut.



Kontxi Sagasta
Langilea
(40 urte)

Ez daukat eta momentuz egiteko asmorik ere ez dut.



Valentin Martinez
Jubilatua
(66 urte)

Bai, aspaldi egin nuen. Beno, egia esan enpresan egin zidaten niri eta lankideei.



Benita Ferreira
Langabetua
(26 urte)

Orain ez daukat baina Gasteizen bizi nintzenean banuen. Gero hona etorri eta asegurokoei esan nien Arrasatera bidaltzeko erreziboak baina ez dizkidate bidaltzen.

KONTSULTA BERRIA!

JUAN RAMON ARANDO AZPIRI
REUMATOLOGIA

LAGUN ARO

Erdiko kale, 22-1. • Tel.: 79 72 16 • ARRASATE

DUKIENA
JATETXEA



Aramaioko Dukiena jatetxean
Haratuztetarako menu berezia:

- Entremes hotz eta beroak
 - Txuleta edo legatza saltsan
 - Postrea eta ardoa
- 2.500 pta.**

Erretserbak aurrez egin!
Tel. (945) 44 50 86

USTEAK USTE

Zurrumurruen
astea

Ahoz aho ibili zen joan den astean Urkulun agertutako hezurren historia, ustezko hezurrei izena eta abizena jartzeraino. Azkenean, egiaren usainik ez, hezurrik ere ez da egon eta.

Aste berean, martizenean oso oker ez banago, harriduraz esnatu zen hainbat arrasatear, egunkari baten argitaratuta ikusi eta irratietan Daewook Fagor jateko akordioa lortu zuela entzun eta gero. Ez zuten ez korearrek gosari makala egingo! baina, kasu honetan gosez geratu, eta Fagorreko agintariek berehala ezetzatu zuten zabaldu zen guztia. Intentzio edo asmo txarrarren usaina ere hartu zioten kooperatibistek sasi-berriari. Gezurra ei zen, baina zurrumurrua bere lana eginda zegoen ordurako, harrezgero bat baino gehiagori entzun dio "zabaldu bada zerbaitegatik izango da". Hori badauka zurrumurruak, ezetzatuta ere, lehen kolpea ezkutatzerik ez dago. Soziologo batek esan zuen behin irati batean: "Nor bait toki txarrean utzi nahi baduzu, ez ezazu esan bera izan dela zer bait egin duena. Esazu zer txar hori egin duena ez dela bera izan, eta berehala zabalduko da".

Beñardo Kortabarria



Ezintasuna

Deunoro Otero

Ertzaintzak Kalistroetan burutu zuen Droga trafikokoaren aurkako "operatibo" umorez tratatzeko asmoa izan genuen hasiera batean, erabilitako medioak eta lortutako emaitza zoragarria ikusirik, baina ezin izan dugu. Delikuentetzat hartuta, Kalistroetan zeuden 50 gazte sentitu zuten inpotentzia eta mesprezua gudan ere sentitzen dugu.

Ezintasuna sentitzen dugu erabili duten aitzakia edota arrazoia, berdin zaigu, herritarren eta beste gazteen elkartasuna ekiditea nahi izan dutelako. Edo agian lortu dutelako? Ezintasuna amorrur bilakatzen da gazteak errudun sentiarazi nahi izan dutelako. Besteek epaitzeko saiakera bultzatu nahi izan dute.

Baina ez ditugu guk epaituko, gure askatasuna, eta baita drogak kontsumitzeko askatasuna ere, ukatuta ikusi dugulako.

Ezintasuna sentitzen dugu, "operatibo" horrekin benetako droga trafikokoaren arduradunen aurrean duten pasibitate zuri nahi izan dutelako.

Ezintasuna sentitzen dugu, hipokresian oinarritzen direlako horrelako ekintzak, batzuen droga kontsumoak

onartu eta beste batzuen, berriz, zigortu egiten dute eta.

Ezintasuna sentitzen dugu, gazteen kontrol soziala lortzeko Droga Fenomenoa instrumentalizatu egiten dutelako eta gazteak urruntzea lortzen dutelako droga-menpekotasunen prebentzio ekimenetatik.

Droga-menpekotasuna hezkuntza eta integrazio arazo da. Horretarako ezagutzen dugun txertoa ilusioa sortzea, bizi dituzten bizi baldintzak hobetzea, eta elkartasunari, konpromisoari eta partehartze sozialari benetako edukinak ematea da. Ez dugu uste horren bidean daudenik peloteroak, kaskoak, furgoiak, polizi jantziak, jarrerak eta metodoak... Eta zuk? ■

Deunoro Otero
Arrasateko
Askagintzakoa da.

“
Ezintasuna sentitzen dugu,
gazteen kontrol soziala
lortzeko Droga Fenomenoa
instrumentalizatu
egiten dutelako
”

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11
ARRASATE

LAKET

Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis

%50

Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 79 11 72

astea bi hitzetan

■ San Felipe Apostol-en batzar orokorra

Joan den igandean batzar orokorra egin zuten San Felipe Apostol elkarteko bazkideek. Iaz 187 lagunek eman zuten izena elkarlaguntzarako elkartean, eta beraz, gauregun 11.255 bazkide ditu. Gaiei dagokierik, familiari ematen zaion laguntza gehitzea erabaki zen. Hemendik aurrera, 35.000 pezetako laguntza jasoko dute senitartekoei familiako norbait hiltzen denean.

■ Jendetzarik ez Gozategi z Blai-n

Uste baino ikusle gutxiago erakarri zituen Gozategi z Blai ikuskizunak. Emanaldia Amaia antzo-

kian izan zen eta jendea gerturatu zen arren, antolatzaileek sarrera gehiago saltzea espero zuten. Gainontzean, ondo egon ei zen Gozategi taldeak eta hainbat dantzari eskaini zuten ikuskizuna. Iaz ere emanaldi bera eskaini zuten Arrasaten.

■ Manifestazioa goizez eta arratsaldez

Jarraik egindako deialdiari erantzunez, joan den ostiral arratsaldean manifestazioa egin zen Arrasaten. Gazteen atxiloketen aurka azaldu eta errepresioa ez dela bidea azaltzea zen manifestazioaren helburua, eta Gestorak ere bat egin zuen deialdiarekin. Manifestazioa Lau Bidera heldu zenean Ertzaintza azaldu eta kar-

gatu egin zuen. Hala ere, ez zen istilu handirik izan.

Eguerdian, bestalde, arrazoi berdinagatik manifestazioa egin zuen hainbat gaztek Arrasaten.

■ Urkulun ez dute giza hezurrik aurkitu

Urkulun pertsona baten hezurrik aurkitu zituztela zioen zurrumurrua zabaldu zen joan den astean Aretxabaletan eta inguruan. Zurrumuru horiek, gainera, hezurrik orain dela urtebete desagertu zen emakume eskoriatzarrenak izan zitezkeela zioten. Ertzaintzak eta Aretxabaleko Udaltzaingoak erabat gezurtatu dute albistea, Urkulun ez dela giza hezurrik aurkitu esanez.



Moduluka Egindako Automobila planteamenduaren etorkizuna ez da batere garbia; bere aplikazioaren bidean punturik egokiena aurkituko dela aurrera daiteke. Halere, handik aurrera, sistema honek dituen abantailek ez dituztela eragozpenak konpentsatuko iruditzen zait”.



IÑAKI ARANBURU


Elhuyar
1997ko urtarrila



Herenegun, duela 20 urte, zabaldu ziren haizetara ikurriñak Hegoaldean legearen bedeinkaziopean. Arrasaten nintzen. Hura festa...! Harik eta Portaloi aurrean andre larri batek berea balkoira lotu zuen arte. Gau ilunean bandera espainola begitandu zitzaigun kalea harturik geneukanoi. Ikurrin zaharra izaki (aspaldikoa, koloreak luzetara emana), gorriak jana zuen berdea; zuria, berriz, kutxako itzalak lizundua horitzeraino. Hango ujuak eta zemaik! Errukarriak ez zuen batere negar egin! Gu beroaren itsuan, ez ginen berandura arte okerraz jabetu”.

JESUS MARI MENDIZABAL

Diario Vasco
1997-1-21



FAGOR ETA VAILLANT BERGARAN

Fagorrek eta Vaillantek Bergaran abian jarri duten Geyser Gastech enpresaren inauguraketa egin zen asteartean. Pentsaurrekoa, agintarien hitzalditxoak, eta ohiko zinta ebakita inauguratutzat eman zen berogailuak egiten dituen enpresa. 1988. urterako 200 lanpostu sortu eta urtero 800.000 berogailu egitea espero da. zuzendariek.



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84



Comercial
ARPE

Kontzeziño, 4 behea • Tel.: 79 78 09

Haratuzteetan zure ilea ere mozorrotu!



"Drogaren aurkako operazioa"

Ertzaintzak ez du aurkitutakoa jakinarazi

Ertzaintzak ez du jakitera eman zer aurkitu zuen joan den asteazkenean burututako "drogaren aurkako operazioan". Operazioaren berri emateko Ertzaintzak kaleratu duen oharrean, San Frantziskoko kalistrotetan droga aurkitu zutela, eta han zeuden gazteek lurre-ra botatakoa zela esaten da. Hala ere, ez da zehazten zein motatako eta zenbat droga aurkitu zuten. Oharrean gainera, azkenaldian kalistrotetan droga saltzen zela antzeman zutelako "drogen prebentzio eta kontrolerako" operazioa egitea erabaki zutela adierazten da.

Operazioaren bukaeran istilu batzuk izan ziren ertzainen eta kalean zeuden pertsona batzuen artean. Ertzaintzaren arabera, pertsona horiek euren lana oztopatu zuten.

Hildakoak

- Juana Uriarte Gallastegi. Abenduaren 27an. 78 urte.
- Vicente Ortega Alegre. 31n. 85 urte.
- Juan Antonio Malet Aretxabala. Urtarrilaren 1ean. 78 urte.
- Alejandro Zabaleta Mendikute. 2an. 74 urte.
- Balbina Kortabarria Ruiz de Azua. 3an. 70 urte.
- Esteban Arana Aranzeta. 5ean. 81 urte.
- Felix Berezibar Ormazabal. 6an. 71 urte.
- Jesus Gamboa Gorostiza. 10ean. 64 urte.
- Martina Escobal Linaza. 11n. 86 urte.
- Marcelino Ramirez Muñoz. 15ean. 87 urte.

Plenoko gaiak

"Ekintza bandalikoak" kondenak EAJren, PSE-EEren, EAren eta Pn

Urtarrilaren 11n gertatutako erasoak salatzen EAJk, PSE-EEK, EAK eta PPK jarri duten mozioa eztaba- datuko da gaurko plenoan, beraz, mozioa aurrera aterako da. Egun horretan zenbait kutzazain eta telefono kabina apurtu, eta EAren egoitza eta epaitegia erasotu zituzten gazte batzuek.

Mozioan "ekintza ban-

daliko" horiek kondenatzea eskatzen da, sinatzaileen ustez horrelako ekintzek ez dute Euskal Herriaren bake prozesuan laguntzen eta. Alkateari, bestalde, herri osoaren ordezkaria denez, ekintza horiek salatzea eskatzen zaio. Mozioak azkenik, tamalgarriz jositzen du Gobernu Batzordean HBko ordezkariak

esandakoa. "Ezin da onartu Udal Korporazioak gertatzen ari dena justifikatzea, era horretan elkarbizitza ondatzen ari direnekin konplize egiten dira eta" esaten da mozioan.

Orain dela gutxi egin dako gobernu bileran, Josu Arkauzen kanporaketaren inguruan kokatu zituen HBk urtarrilaren 11ko era-

Senideak elkarteak dirulaguntza eskatuko dio udalbatzari

Preso dagoen familiartekoa bisitatzera joateak kostu ekonomiko handia dakarrela eta, gastu horri aurre egiteko dirulaguntza eskatuko du gaur Senideak elkarteak.

Eskaria jasotzen duen mozioan zenbakiak ematen dira, preso bakoitza bisitatzera joatea zenbat kostatzen den azaltzeko. Esaterako, Kanarietako Salto Del Negro espetxean dagoen presoari bisita bat egitea 70.000 pezeta kostatzen da, eta 12.000 Madrilgo Valdemoron dagona bisitatzera. Senideak-ek, %10eko dirulaguntza eskatzen dio udalbatzari senitarteko bakoitzarendako. Senideak-en ustez,



Gestorak plenora joateko deia egin du.

sakabanaketa legez kanpoko neurria da eta era berean, senitartekoei oztopo ekonomiko handia dakarkie.

Arrasateko Amnistiaren aldeko Batzordeak, gaur

arratsaldean egingo den plenora joateko deia luzatu du.

Igandean, bestalde, gose greba hasi zuen Jose Ignacio Gaztañaga preso arrasatearrak.

ako mozioa Pn eskutik

soak. Euskal Herriak arazo politikoa bizi duela esanez, arazo horri irtenbide politikoa ematearen alde azaldu zen HBko ordezkaria. Ezker Batu-ko zinegotziak ere Euskal Herriak arazo politikoa bizi duela esan zuen, baina EBaren ustez horrek ez ditu sabotajeak justifikatzen. Horregatik, erasoen aurka azaldu zen bere garaietan.

Etxeko laguntza zerbitzua

Lehiaketa prozesua bukatu eta gero, etxeko laguntza zerbitzua Goizargi enpresari adjudikatzea erabakiko du plenoak. Laguntza hori hirugarren adinekoei eta elbarrituei zuzendua dago, eta onuradunei langile bat bidaltzen zaie etxera. Iaz 135 arrasatearrek jaso zuten etxez-etxeko laguntza.

Azken urteetan Bazain enpresak eraman du zerbitzua ardurara, baina behin epea pasatakoan berriz ere zerbitzua azpikontratatu beharra zegoen. Lehiaketan puntu askotako alde atera zion Goizargik, baina Bazainek ez daude erabakiarekin ados eta plenora euren eza-dostasuna azaltzera joango direla espero da.



Zerrajeraren erdiko edifizioa, erlojua duena, ez botatzea nahi du SPRIk.

Hirigintzako gaiek piztuko dute eztabaidarik gaurko plenoan

Gaur berriz ere aztertuko dira abenduko plenoan mahai gainean geratu ziren bi gai garrantzitsu: Zerrajerarena eta San Frantziskoko errotondarena.

Zerrajeraren puntuan SPRIrekin hirigintza hitzarmena sinatzea proposatzen da, eta azken plenoan bezala iritzi desberdinak izango direla espero da. Abenduko plenoan, SPRIk aurkeztutako hitzarmena sinatzearen alde azaldu zen hirukoa eta horren arabera, erlojua duen eraikina ez litzateke botako. Gobernu taldea, berriz, urbanistiko-ki eremu horretan zer eraikin nahi den definitzearen alde azaldu zen. Inguru horretan etxebizitzak egin-

go direnez, Zerrajeraren erdiko edifizioa ez botatzeak eragin handia izango luke urbanizazioan. SPRIk, Enpresa eta Berrikuntza-Zentroa kokatu nahi du Zerrajeraren erdiko eraikinean.

Jarrera desberdinak San Frantziskoko errotondaren inguruan ere. Hamabost milioiko kostua izango duen proiektuan errotonda bat egiteko asmoa jasotzen da besteak beste, baina oposizioak proiektua ez zuela garbi ikusten argudiatu zuen azken plenoan.

Horrez gain, beste bi kaleko urbanizazio proiektuak aztertuko dira: Maalako Errabalakoa eta Pablo Urangakoa. Maalako

proiektuan aldaketa egitea erabaki eta gero, (zorua granitozkoa izango da) gaurko plenoan proiektua onartu eta enpresa batzueri obrak egiteko aurrekontua eskatuko zaie. Pablo Urangan, bestalde, batez ere ingurua txukuntzeko obrak egingo dira.

LEGARGAIN

Urtebete baino gehiagoz proiektua geldirik egon ostean, gaurko plenoarekin Legargaineko proiektua berriz mugituko da. Zinegotziek erabaki beharrekoa tramite hutseko puntua izan arren, Legargainen etxebizitza erosteko asmoa dutenek pozik ikusiko dute proiektua mugitzen hasi dela.

Arrasaten ere izan zuen ohiartzunik metaleko langileen grebak

Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Arrasateko langile batzuk bat egin zuten CCOO, ELA, UGT eta LABek astertean egin zuten greba deialdiarekin. "Enplegu finkoa sortu eta soldatak hobetzearen alde" lemapean eguerdian manifestazioa egin zen Arrasaten, eta sindikatuen arabera 500 lagunek hartu zuen parte. Herriko kaleak zeharkatzeaz gain, ETT-etara jo zuten manifestariak aldi baterako lan enpresen aurka daudela jakinarazteko.

Manifestazioa egin aurretik, hala ere, lantegi batzuetara joan zen hainbat lagun. Lehenengo Arrasateko JMA lantegian izan ziren, eta sindikatuen arabera langile ba-



Eguerdian manifestazioa egin zen herrian CCOO, ELA, LAB eta UGTk deituta.

tzuk kalera irten zuten. Ondoren gauza bera egin zuten Gelman, eta hemendik ere hainbat langile irten ei zen. Azkenik Aretxabaletako Azbe enpresara joan ziren, langilei protesta egitearen beharraz

ohartarazteko.

Lan orduak murriztea eta soldata igotzea eskatzen dute sindikatuek, eta enpresariekin akordioa lortu ezean, berriz ere greba egingo dutela iragarri dute.


Arazoak nortasun agiriarekin

Udaltzaingoak ez daki Poliziaren funtzionariak noiz etorriko diren nortasun agiriaren berritzea bukatzera. Kontua da orain hatz markak eta argazkia jarri behar direla nortasun agiriari, eta lan horiek egiteko funtzionariak etorri behar dute Donostiatik. Abenduan edo urtarrilean etorriko zirela uste bazen ere, ez da horrela izan, eta gainera, oraindik ez dute jakinarazi noiz etorriko diren.

Nortasun agiriaren berritzea hasi zutenak arduratuta daude atzerapenarekin. Esaterako, gutxi barru jubilatuko direnek ezinbestekoa dute nortasun agiri berria lehenbailehen edukitzea.




Bezerearekin zerbitzu zuzena



Kalitatezko muntaiak

Irtenbide aproposena!




(I+D) Ikerketa eta garapena



Fabrika Zentrala

- Kalitatea
- Prezioa
- Zerbitzua
- Garantia

Kataide poligonoa, 4. pabilioia.
Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE



ARKOren egoitza berria



TELEFONOAK

ATB:	77 06 90
ARRASATE PRESS:	77 05 65
Publizitatea:	77 08 15
Administrazioa eta harpidetza:	79 02 26
Faxa:	77 09 40

Otalora, 31 • Arrasate

A ZELAKO GIROA SAN BALEIXO JAIXETAN!



Argazkia ikusi baino ez dago Meatzereko bizilagunek San Baleixo jaixetan zein ondo pasatu zuten konturatzeko! Joan den ostiralean auzo afaria egin zuten eta 75 bat lagun bildu zen bertako elkarteetan. Gainera auzoko 11 jubilatuei opariak egin zizkieten. Sukaldari lanetan Balentin Moreno ibili zen eta giroa animatzen Joxe Gardoki. Auzoko jaien alde errifak ere atera zituzten eta zenbaki saritua 459 da. Zenbakiaren jabeak otsailaren 9ra arte izango du epea saria jasotzeko: bildotsa, ardo kaxa, bi kaxa langostino, gaztaia eta urdaiazpikoa.




INDIOILARREN KAIOLA BERRIA

Gogoratuko duzue orain dela hilabete batzuk Santa Barbarako indioilarren kaiola erre egin zen. Hori dela eta kaiola berritu behar izan dute eta hau da hartu duen itxura berria. Indioilarrak pozik egongo dira...!

EUSKARAOKEA ARRASATEN

Otsailaren 12an eta 13an ETB1ek emititzen duen Euskaraokea programa Arrasaten egingo da. Otsailaren 12an finalurrekoa egingo da aurreko programetan irabazle geratu diren beste herrietako neska-mutiko guztiekin eta otsailaren 13an Arrasateko ikastola eta eskoletako neska-mutiek hartuko dute parte.

Euskaraokea arratsaldeko 5.30etatik-8.30ak arte burutu da baina saioa ez da emitituko bi aste beranduagora arte.



Salmenta eta
zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 79 99 61 • ARRASATE



- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA



MUS ETA TUTEAN ERREGE

Zein pozik laurak kopa bana eskuetan dutela...! Egipe elkartearen jokaturako mus eta tute txapelketako irabazleak dira. Izkinetakoak Joxe Kortabarria eta Rufino Herranz dira eta hauek tutean irabazi zuten;

erdiko bikotea berriz musean, Felix Gordo eta Eugenio Arkauz. Urtarrilaren 18an egin zen sari banaketa eta orduan atera zitzaizen argazkia. Ondoren afaria egin zuten guztiek emazteekin.

IZENAK


San Felipe Apostol

elkarteak Zuzendaritza Batzordea berri du. Joakin Lagunillaren ordeaz, Angel Arregi izango da lehendakaria. Diruzain, berriz, Andres Lezeta izendatu dute eta bokal berriak honako hauek izango dira: Jesus Mari Apraiz, Juan Ignacio Biain eta Jose Vazquez.

ZENBAKIA

495

inkesta egin dira herrian jakiteko Arrasate Irratiaren ezaguera zenbatekoa den. Inkestaren datuen arabera, hamabost urtetik gorako arrasatearren %26,1ek du irratia ezaguera espon-tanea eta %46,3k iradokitua. Beste datu bat, inkestatuen %32,1ek entzuten dute Arrasate Irratia noiz behinka. Egunero edo sarritan entzuten dutenak, berriz, %8,2 dira.




TXOTX EGIN DEZAGUN!

Besaideko mendizale koadrila polita joan zen domekan Ituren-Mendaur-Arantza ibilbidea egitera eta ondoren, mendian galdutako indarra berreskuratzeko, sagardotegira joan ziren txotx egitera.

Sagardo barririk erdi hutsik utzi ei zituzten...



GIDArekin badakizu nondik ekin!



Arrasate
Aretxabaleta
Eskoriatza
Leintz-Gatzaga

- Gida 97 ez bazaizu etxera heldu...
- Datoren bat txarto agertzen bada...
- Hurrengo urtean agertu nahi baduzu...

Deitu 77 08 15 telefono zenbakira.



ARRASATE KOMUNIKABIDEAK



Dominikar Errepublikatik etorritako hamabi bat emakume eta Kubatik etorritako bost bat ei daude Arrasaten.

Karibetik Mondragoera

Oporretan Karibeko irlaren batera joan eta hango emakume batekin ezkontzeko asmoz bueltatu. Mutil askori gertatu izan zaie hori, eta fenomeno horrek sortarazi du zeresanik. "Han ligatzea erraza da", "hegazkinetik irten bezain laster itxaroten dituzu" edo "handik irteteko desiatzen daude"... nork ez du noizbait horrelako komentarioren bat entzun! Baina horrela al da benetan?

Denok dakigu Arrasaten bertan bade-la hemengo mutil bat ezagutu eta herrira bizi izatera etorri den hainbat emakume. Dominikar Errepublikatik etorritako hamabi bat emakume ba ei daude, eta Kubarrak, berriz, bost inguru dira.

Izaeraz oso irekiak izanik, euren esperientzia kontatzeko gertu egoten dira emakume hauek. Erreportai honetarako

protagonistak aurkitzerako orduan ere, arazo gutxi.

ROCIO, MARTINA ETA ZUMAYA

Hiru emakume hauek ez zuten aurrez elkar ezagutzen, baina Arrasatera bizi izatera etorri zirenetik badute harremanik euren artean. Arrazak, kulturak eta senar arrasatearra edukitzeak lotzen ditu neska gazte hauek. Euren jaioterria eta familia utzi, eta maitasunak

bultzatuta ozeanoa zeharkatzea erabaki zuten hirurek.

Martinak 28 urte ditu eta ekainean bost urte beteko ditu Arrasatera etorri zenetik. Beste askok bezala Dominikar Errepublikan, bere jaioterrian, ezagutu zuen gaur egun senartzat duena. Senarra hilabeterako oporretara joan, elkar ezagutu eta ondorengo hilabeteetan telefonoz harremana izan eta udan ezkondu egin ziren; lehenengo jaioterrian

zibilez, eta gero hemen.

Martinak hona etortzeko beldurrik ez zuela esaten du. Oso lasaia denez, trankil asko etorri ei zen Arrasatera.

Rociok, *Rosi*-k, ere Dominikar Errepublikan egin zuen topo Arrasateko mutil batekin orain dela bi urte. Mutila 15 egunerako joana zen baina abenduan berriz itzuli zen egun batzuetarako eta abuztuan ezkondu egin ziren. Ezkonberriek, hala ere, ezin izan zuten Arrasatera batera etorri; emaztea beranduago etorri zen, eta beharbada horregatik, beldurtuta hartu zuen hegazkina. "Ni urduri nentorren, alde batetik hegazkina-gatik, eta bestetik, entzun da nuelako neska batzuk engainatu egiten dituztela.

- Eta ez badago aireportuan zain?- pentsatzen nuen nire artean".

Zorionez, senarra itxaroten zuen 22 urteko neska honek.

Azkenik Zumaya dugu. Izen euskalduna ei du, esango duzue askok. Baina ez, jatorri argeldarra du 25 urteko emakume honen izenak.

Kubatarra dugu Zumaya eta bost urte daramatza gure artean.

Senarra Kuban ezagutu zuen, hara lanera joana zen eta. Baina zelan diren gauzak, azken hamar egunetan ezagutu zutela elkar. Gabonetan, hala ere, berriro itzuli zen mutila eta hilabete gutxira, udan, ezkondu egin ziren. "Nik ez nuen hona etortzeko beldurrik" dio Zumayak. Hala ere, aitortzen du senarra ez zuela ondo ezagutzen.

BAPATEKO KONTUA

Askori harrigarria irudituko zaizue emakume hauek egiten dutena, izan ere egia da senartzat izango dutena denbora motzean ezagututa etortzen direla. "Beharbada ausartagoak gara, eta gainera, gure jaioterrian normala da 20 urterekin ezkontzea" erantzuten dute hirurek erabakia bizkorregi ez ote zuten hartu galdetzean. Denboraren

kontua dela eta, "etortzeko desiatzen daude" komentarioa barra-barra entzuten da. Martinak, *Rosik* eta Zumayak aitortzen dute, euren herrietako egoera eskasak eraginda herri aberatsagoetara etorri nahi duten emakumeak egon badaudela. Horrek, hala ere, ez ei du esan nahi guztiek berdin pentsatzen dutenik eta denak alde egiteko itxaroten daudenik. "Alde

egiteagatik balitz EEBBtara joango nintzateke, nire aita eta anaia batzuk han bizi dira eta" diosku *Rosik*. "Nire ametsa ez zen Europako herri batera etortzea baina horrela gertatu zen" esaten du Martinak.

Eta, aireportura heldu bezain laster neska mordoa itxaroten daudenari buruz, zer? Galdera horren aurrean barre egiten dute Dominikar Errepublikako bi neskek, eta



Rocio Vargas, 28 urte
(Dominikar Errepublikakoa)

Ekainean bost urte beteko ditu Arrasatera etorri zenetik, eta 16 hilabeteko seme bat du. Herrian pozik bizi dela esaten du, baina familikoekin eta jaioterriarekin asko gogoratzen ei da. Etxekoak bisitatzeko, datorren hilean Dominikar Errepublikara joateko asmoa du.

Zumaya Rodriguez, 25 urte

(Kubakoa)

Sirimiria ez du batere gustoko, baina hemengo jaietan gustora ibiltzen da kubar hau.

Orain dela bost urte heldu zen Euskal Herrira eta lehenengo Oñatin bizi izan zen. Oñatin hiru urte egin ostean, Arrasatera etorri zen.

Jaioterria eta familia faltan ez botatzeko, etorri bezain laster kalera irteten eta lagunak egiten hasi zen. Joan den udan bere ama Arrasaten izan zen, eta harrিতa geratu zen alabari kalean ibiltzea izugarri gustatzen zaiolako. Zumayak esaten duenez, inoiz ez zuen pentsatu lagunak egitea erraza edo zaila izango zen, "besterik gabe kalera irteten hasi nintzen".

Askori harrigarria irudituko zaizue emakume hauek dutena denbora motzean ezagututa etortzen direla.

horrela ez dela diote. "Gainera kontu bat argitu nahi dugu. Badaude Karibera neska bila doazen mutilak, baina ere berean neska asko joaten da hango mutilen bila". Zumayak, berriz, komentario hori batez ere bidaia agentzien eraginez piztu dela uste du. "Hona etorri nintzenez bidaia agentziek Kubari buruz zelako publizitate egiten zuten ikusi nuen. Kubako neskek, oh! zioen

bidaia agentzia batek. Hori irakurrita normala ondorio batzuk ateratzea!".

Karibeko neska beltzaren buruz entzuten diren txutxumutxu batzuk besterik gabe hartzen dituzte, baina beste batzuk gehiegizkoak iruditzen zaizkie. "Hemengo mutil batzueri entzun izan diet ez dakit zenbat ligatu zutela Dominikar Errepublikan, baina nik pentsatzen dut: non ibiliko ete

ziren!" komentatzen du *Rosik*. Zumaya ere hasieran lur eta zur geratzen zen hemengo mutilen bati Kubara neska bila zihola entzun, eta berari Kuban lagunik ete zuen galdetzen ziotenean.

Kontuak kontu, argi dago hemengo hainbat mutil bapatean maitemindu dela Karibe aldeko emakumeren batekin. Emakume horiek zer bait berezia dutela pentsatu behar ote

da? "Esaten dutenez maitagarriagoak gara" erantzuten dute hirurek.

"EZ GARA DAMUTZEN"

Rosi, Martina eta Zumaya pozik bizi dira Arrasaten, nahiz eta hasiera aldapatsua izan eta euren familiaz asko akordatu. "Familia eta jaioterria ez dira sekula ahazten baina akordatzen ez egoteko, ni kalera irteten hasi nintzen etorri bezain laster. Nik orain lagun mordoa dut, eta oso gustora nago"- kontatzen du kubarrak.

Dominikar Errepublikako protagonistek ere jende asko ezagutzen dute, baina euren ustez ez zen erraza izan lagunak egitea. Martinaren berbetan, beharbada han irekiagoak dira. "Hemen zailagoa da jendea ezagutzea, baina behin lagunak eginda jendea jatorra da".

Orokorrean pozik daude arrasatearrek egin dien harreaz, baina jasan behar izan dute mezpresurik ere. "Senarra kenduko diogunaren beldur, izan da etxera gonbidatu ez gaituen emakumerik" dio eurretari batek.

Arrasaten daramaten denbora ez dute alperrik galdu. Lagunak egiteaz gain, ikastaro desberdinetan parte hartu dute eta izan dute lanen bat edo beste ere. Hori bai, zaila ei zaie lana aurkitzea. Orain, Martina eta Zumaya aseguruak saltzen hasi dira eta gazteena, *Rosi*, informatika ikastaro bat hasteko asmotan dabil. Zorte on!

Maria Agirre



Kuban bizi zela zuzenbidea ikasten hasi zen baina lana egin nahi zuela eta, laster lanean hasi zen.

Kubatik irtetea ez zuela amesten dio Zumayak, bera maiteminduta etorri ei zen. Aitortzen du, hala ere, ez zuela senarra asko ezagutzen.



Martina Drullard, 22 urte

(Dominikar Errepublikakoa)

Apirilean bi urte beteko ditu Arrasaten. Bera ei da Dominikar Errepublikatik herrira heldu den azken neska. Lagun asko egin ditu Arrasaten, eta gustora bizi dela esaten du. Orain lana aurkitu nahiko luke, baina lehenengo informatika ikastaro batera joan nahi du.

ten dutena, izan ere egia da senartzat izango beharbada ausartagoak gara" diote eurek.

Eskubaloi taldeko jokalaria

Iñaki Irurtia

"Bigarren buelta bikaina egin behar dugu mailari eusteko"

— **Lehen urtea Arrasaten, zer moduzko esperientzia izan da?**

— Oso gustora nago eta jende jatorra ezagutu dut. Okerrena lehen bueltako hainbat partidutan izan dugun zorte txarra.

— **Legazpiar bat Arrasaten zer dela eta?**

— Ibon Alzelai nire entrenatzailea izan zen La Sallen eta berak Arrasatera etortzeko esan zidanean ez nuen bi bider pentsatu.

— **Gol asko sartzen dituzu?**

— Lau edo bost partidu bakoitzeko. Estremo postuan jokatzeko eta batatzeko hori ez da txarra.

— **Ze ezugarri behar du eskubaloiko hegaleko batek?**

— Altua behar du izan eta azkarra. Indarra ez da hain garrantzitsua baina abiada bai.

— **Nola definituko zenuke zeure burua?**

— Uste dut azkarra naizela eta salto handia dudala.

— **Jokatu duzun partidu onena?**


— Iturripen Hondarribiaren kontra. Bederatzi gol sartu nituen eta gol bategatik irabazi genuen. Partidu borobila irten zitzaidan.

— **Denboraldi bukaeran non ikusten duzu Arrasate?**

— Mailari eutsiko diogula uste dut, horretarako bigarren zati ona egin behar dugu. Konfidantza, gogor ekitea eta gogoia behar dugu aldeko emaitzak lortzeko.



ESKUBALOIA Azkenean garaipena



Aspaldiko partez Arrasate eskubaloi taldeak garaipena lortu zuen domekan Hondarribian. Partidu borobila burutuz Ibon Alzelaiaren mutilek 17 eta 18 irabazi zuten. Lortutako puntuak batez ere jokalarien moralari igotzeko garrantzitsuak dira. Izan ere, mailari eutsi nahi badiote hemendik aurrerako neurketa gehienak irabazi beharko dituzte. Arrasatek datorren zapatuan arratsaldeko 6etan Adrianense taldearen bisita jasoko du Iturripen. Saillkapeneko hirugarren sailkatuak ez dio gauzak samur jarriko Alzelaiaren taldeari, baina bide batez Arrasatek ere ez du amore emango eta dakien bezala jokatu ez luke arazorik izan behar emaitza on bat ateratzeko.

FUTBOLA Laugarren postuan sendo



Jesus Mari Barrutia-bengoak zuzentzen duen taldeak ezin izan zuen jarraian bostgarren garaipena lortu eta galdu egin zuen 1-0 Zestoaren kontra. Galtzeaz gain bi jokalarik txartel gorria ikusi zuten, beraz, Zuluetak eta Matalobosek ezingo dute hurrengo neurketa jokatu. 22. ihardunaldian Mondra eta Beti Gazte izango dira nor baino nor. Norgehiagoka domekan arratsaldeko 4etan jokatu da Atxabalpen. Lesakako taldea 9. postuan dago saillapeneko eta lehen bueltan 2 eta 0 irabazi zion Mondrari. Mondra berriz, laugarrena da 37 punturekin.

Emakumeek gol bateko

aldeaz irabazi egin zioten Ikesi taldeari. Puntu horiek saillapeneko erdialdean jarraitzeko baliogarriak izan dira. Hortik gora egiteko garaipen gehiago behar dute eta horretarako aukera datorren zapatuan arratsaldeko 4.15etatik aurrera egongo da Atxabalpen Anaitasunaren aurrean.

RUGBYA Donostian zita domekan



Arrasate Rugby Taldeak 27-13 irabazi zuen Garagartzan Durangoren kontra. Neurketa parekatua izan zen eta talde biek ondo jokatu zuten. Hala ere, partidu horretan protagonista bat egon zen; Iban Agirreurreta jokalaririk neurketa bikaina burutu eta berak eman zion garaipena Arrasateri. Datorren domekan Atletico San Sebastian taldea izango dute areario eguerdiko 12etan Bidebietan.

SASKIBALOIA Gura baina ezin



Urbina Maltzaga irabazteko asmoz kantxaratu zen Mallorkaren kontra. Asmoa dena dela, ez zen nahikoa izan eta German Mongeren mutilek 90-97 galdu zuten. Jose Luis Superviak, azken fitxaketak ez zuen jokatu baina hurrengo partidurako gertu izango da. Urbina Maltzagak Pinturas Lepanto taldea izango du aurrean domekan. Huescako taldeak sei partidu irabazi ditu gaur arte eta hamar galdu. Arrasatek lau baino ez irabazi. Neurketa domekan arratsaldeko 6etan jokatu da Monzongo kiroldegian.



Mari Jose Gil eta Jabier Mentxaka beterrano taldeko korrikalariak.

Arrasateko korrikalari beterranoak txapela kentzeko moduan

Arrasateko Atletiko Taldeko Jabier Mentxakak eta Enrike Kabiketak Donostiako Nazioarteko Krossean hartu zuten parte domekan. Guztira 105 korrikalari izan ziren eta 78k lortu zuten helmugara heltzea. Mentxaka 36' 38" denborarekin 39. postuan helmugaratu zen eta Kabiketa 38'29"rekin 60. nean. Las-

terketa gogorra izan zen, batez ere lurra oso biguna zegoelako. Hurrengo zita Gasteizen burutuko den Euskadiko krosa. Bertan Enriketa Kabiketa, Cesar Diez, Jabier Mentxaka eta Mari Jose Gil beterranoek hartuko dute parte. Era berean Cesar, Jabier eta Mari Jose joan den asteburuan Orioko krossean izan ziren.

Mari Jose Gil beterrano mailan Gipuzkoako txapelkun izan zen. Jabier Mentxakak bigarren postua lortu zuen 4.500 metrotan, 40 urtekoen artean Gipuzkoako txapelkunordea da eta Cesar Diezek bostgarren postua eskuratu zuen, 45 urtekoen artean Gipuzkoako txapelkun bihurtuz.

Pilotariak buru belarri lanean

Zapatu arratsaldean, Deba Arroako bi neurketa jokatu ziren infantil mailan. Zubillagak eta Uribarrenek 1 eta 5 galdu zuten Antzuolako pilotarien kontra eta Ormaetxeak eta Dominguez-ek 5-0 irabazi. Deba Arroa txapelketa tenis seanean erabiltzen den puntuazio berdinaz arautzen da. Zapatu gaezan Taldeen arteko txapelketan Josu Errastik eta Unai Uribarrenek izugarriko neurketa eginez, samur menperatu zuten Azkoitiko taldea 22 eta 12. Domekan Gasteizko Zaramaga Txapelketan izan ziren. Infantiletan Dominguezek eta Etxeandiak 18 eta 9 irabazi zuten eta Alebinetan Zuazuak eta Ugartetxek 17 eta 18 galdu. Domeka honetan Taldeen Arteko Txapelketa-ko neurketa jokatu dute juniorrek eskuz binaka Gernikan. Zapatuan arratsaldeko 4etatik aurrera Deba Arroa infantil mailan egongo da jokuan Eskoriatza eta Aretxabaletan. Asteartean arratsaldeko 7etan kadete, jubenil eta afizionatuek Iturripen izango dute zita.

ATE taldeak bi babesle berri

Afizionatu mailako Arrasate Txirrindulari taldeak Born eta Cuberteria Jay enpresen babesle izango du aurtengo denboraldian. Jantzi eta koxtetan publizitate hori ikusi ahal izango bada ere, enpresa biek emango duten laguntza da taldearentzat garrantzitsua. Laguntza horrekin iaz baino lasaiago ibiltzeko aukera izango dute Arrasateko txirrindulariek. Taldeko zuzendaritzari dagokio-

nez, iaztik hona ez da aldaketa handirik izan. Josu Estevezek eta Eneko Garaik zuzendari lanetan jarraituko dute eta hauekin batera Pedro Carballo. Txirrindularien artean berriz, badago gorabeherarik. Iaztik hiru txirrindularik utzi dute taldea: Aitor Larrea antzuolarrak, lan arazoak direla eta, txirrindularitza utzi du; Jon Apeirribai arrasatearra Olarra taldera joan da; eta Jon Azko-

rra getxotarra ACR-ra. Gainera zortzi txirrindulari berri sartu dira: Jose Ramon Aias-tui oñatiarra Pinturas Aguilartaldetik dator, Iñigo Carballo laudiotarra SVC talde-tik, Agustin Ulanda Legorretakoa Caja Ruraletik. Horrez gain, lau jubenil berri egongo dira: Iñigo Mondelo donostiarra, Jon Unanumbergararra, Zuhaitz Herrero eta Jose Sedano arrasatearrak. Azken fitxaketa Marcos Gon-

zalez, Tarrasako txirrindularia izan da. Iaztik beste hauek jarraitzen dute: Oskar Askasibar, Xabier Lizaso, Iagoba Arranz, Roberto Cuartero, Jabier Migel, Oscar Estevez, Gorka Valgañon, Iban Sastre eta Sergio Frutos. ATE taldeak martxoan ekingo dio denboraldiari baina dagoeneko hasi dira entrenatzen. Aurtengo helburua iazko denboraldian egindakoa hobetzea izango da.



Irati STS dagoeneko sailkatuta

Lehen fasea bukatzeko sei ihardunaldi faltan, A multzoko Irati STS taldea bakarrik dago sailkatuta, beste guztiek ondorengo astetan lortu beharrezko dituzte puntuak aurrera jarraitzeko. Honez gero, jakina den bezala, multzo bakoitzeko hamar talde sailkatuko dira eta hamaitzagarren bi onenak. Guztira 32 talde izango dira hurrengo fasean zortzi multzotan banatuta. Azken sprint honetan beraz zorte onena talde guztiei!

Laburrak

■ PARTIDU INTERESGARRIAK

Partidu interesgarriak egongo dira asteburu honetan bai Zaldibar eta baita Iturripen ere. Zaldibarren goizeko 11etan B multzoko Okorete-gik Ke Oxtiasen kontra neurtuko ditu indarrak eta ordu bete beranduago AC Surcosen etsaia Danok Lagun izango da. Talde hauek D multzokoak dira. Arratsaldean Iturripen Txeyenex eta Bedarreta taberna izango dira nor baino nor. Txeyenex bigarren postuan dago sailkatuta eta Bedarreta zazpigarrena da. Domekan beste bi partidu aipagarri: 11etan Zaldibarren Adelaida D multzoko Aldibi eta MSM Ingenieria Integralek jokatuko dutena eta 12etan Bko Cervecería Leintz eta Insert Coinen artekoa.

■ SEI TALDE ATSEDENAZ

A multzoko Potrosorri, Aurre Bolie; B multzoko Perrahotsa eta Dko Sokoakoak, Orlando Piratas eta Borrock 'n Roll taldeek atsedena izango dute otsailaren lehen asteburuan.

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa
Estimulazio goiztiarra
Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotrizitatea eta hizkuntz bereziera)
Logopedia
Laguntza terapia
Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tel.: 79 48 77
ARRASATE

Baster-alde



Jatetxea

Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa • AREIXABALETA

Tel.: (943) 79 24 58

SIRIMIRI

Zure gustoko arropa!

Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA
Ferrerías, 35 ARRASATE
Tel.: 77 13 78

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Irati STS	15	14	0	1	96	27	28
Betrayer	15	12	0	3	89	35	24
Lorategi	15	11	2	2	62	36	24
Aurrera Bolie	15	11	1	3	87	45	23
Arrogoi Taberna	15	11	0	4	56	52	22
Pipwhis	15	10	1	4	71	52	21
Galartza Kont.	15	9	1	5	64	46	19
Totem	15	8	2	5	67	43	18
DKB	15	7	4	4	52	40	18
Onaniereng	15	8	1	6	45	59	17
Abinagraus	15	7	2	6	72	48	16
Me la pela	15	6	2	7	59	46	14
Ojo Avisore	15	6	2	7	67	55	14
Baneuko	15	6	2	7	32	40	14
Leya	15	6	1	8	47	66	13
Berango Sukald.	15	5	2	8	54	64	12
Potrosorri	15	5	1	9	46	67	11
Viboras	15	3	1	11	58	80	7
Alai Gozokiak	15	1	5	9	30	73	7
Kriskibalda	15	2	2	11	34	73	6
Etxe Mobil	15	1	0	14	15	124	2
Kaxi Ganamos	15	0	0	15	3	35	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Cerveceria Leintz	15	12	2	1	97	26	26
Naranja Mekanika	15	13	0	2	109	35	26
Okoretegi	15	11	3	1	81	29	25
Ke Oxtias	15	10	3	2	62	40	23
Insert Coin	15	10	2	3	72	29	22
Argi Ibili	15	10	0	5	94	31	20
Jotakabau	15	7	4	4	50	59	18
Diego Antonio	15	8	0	7	79	59	16
Los Heredia	15	7	2	6	61	56	16
Los Innombrables	15	5	6	4	63	60	16
Pepelus	15	6	3	6	59	53	15
ZZPPW7	15	5	5	5	70	71	15
Motz	15	6	3	6	49	61	15
Fosforos	15	6	2	7	62	65	14
Perrahotsa	15	5	3	7	42	53	13
La mosca Gao	15	4	4	7	70	80	12
Sobre dosis de.	15	5	2	8	50	69	12
Gualtrapas	15	5	1	9	48	82	11
Ganbelas	15	3	0	12	44	74	6
Kinder Konpresa	15	2	1	12	39	94	5
Elisabeth	15	0	3	12	35	132	3
Hapoel Jamon	15	0	1	14	28	106	1

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Sortu Informatika	15	12	2	1	88	34	26
Txeyenex	15	10	3	2	71	40	23
MSM Ingeni Int.	15	11	0	4	70	43	22
Sokoakoak	15	10	1	4	93	55	21
Nuevo Taberna	15	9	3	3	75	47	21
KK Jaurilaritzari	15	10	1	4	59	54	21
Bedarreta Tab.	15	10	0	5	54	35	20
AC Surcos	15	9	1	5	11	54	19
Orlando Piratas	15	9	1	5	70	63	19
Koka Juniors	15	6	3	6	60	58	15
Adelaida	15	7	1	7	58	58	15
Los Dimy	15	7	1	7	55	57	15
Danok Lagun	15	6	3	6	44	51	15
Hirei	15	7	0	8	43	66	14
Lautherbrunnen	15	6	0	9	42	73	12
Tronkoteak	15	6	0	9	32	68	12
Cartonajes Igamo	15	4	2	9	42	52	10
Borrock Roll	15	4	1	10	75	78	9
Anbotoste	15	4	0	11	32	54	8
Bukanak	15	4	0	11	47	80	8
Rotor de Bolbog.	15	1	1	13	7	48	3
Iluna Taberna	15	1	0	14	31	91	2

Irudia



Sortu Informatikak eta Hireik neurtu zituzten indarrak zapatuan. Hireiko jokalariek era guztietako ahaleginak egin zituzten neurketa aurrera ateratzeko, baina intentzio onak ez zuen fruiturik ekarri. Azkenean Sortu Informatika 5 eta 1 nagusitu zen.

Emaitzak

A taldea

Ojo Avisore 2 - Betrayer 3
 Arrogoi Taberna 3 - Abinagraus 1
 Kriskibalda 0 - Leya 1
 Irati STS 10 - Potrosorri 1
 Lorategi 5 - DKB 2
 Alai Gozokiak 2 - Pipwhis 3
 Aurrera Bolie 6 - Oñaniereng 2
 Baneuko 1 - Kaxi Ganamos 0
 Berango Sukaldeak 2 - Totem 2
 Galartza Kont. 5 - Viboras 5
 Me la Pela 11 - Etxe Mobil 2

B taldea

Ke Oxtias 1 - Argi Ibili 0
 Ganbelas 0 - Okoretegi 1
 Insert Coin 3 - Jotakabau 3
 Motz 1 - Cerveceria Leintz 10
 ZZPPW7 4 - Naranja Mekanika 2
 Los Innombrables 2 - Pepelus 2
 Kinder Konpresa 2 - Los Heredia 3
 La mosca Gao 5 - Elisabeth 5
 Diego Antonio 3 - Fosforos 2
 Perrahotsa 3 - Hapoel Jamon 2

D taldea

Iluna Taberna 0 - Lautherbrunnen 1
 Orlando Piratas 3 - Sokoakoak 7
 Bedarreta tab.1 - Rotor de Bolb. 0
 Danok Lagun 2 - Txeyenex 4
 Cartonajes Igamo 3 - AC Surcos 2
 MSM Ing. Int. 1 - KK jaurilaritzari 4
 Nuevo Taberna 3 - Adelaida Aldibi 5
 Koka Juniors 1 - Tronkoteak 3
 Sortu Informatika 5 - Hirei 1
 Anbotoste 0 - Los Dimy 1
 Bukanak 7 - Borrock Roll 10

Hurrengo partiduak

16. ihardunaldia

Otsailak 1. Larunbata

Zaldibar

8.50 Betrayer - Me la Pela
 10.00 Naranja Mekanika - Motz
 11.00 Okoretegi - Ke Oxtias
 12.00 AC Surcos - Danok Lagun
 13.00 Viboras - Berango Sukaldeak
 14.00 Gualtrapas - Kinder Konpresa
 15.00 Abinagraus - Ojo Avisore
 16.00 Jotakabau - Ganbelas
 17.00 Los Dimy - Sortu Informatika
 18.00 Totem - Baneuko
 19.00 KK Jaurilaritzari - Cartonajes Igamo

Iturripe A

13.00 Leya - Arrogoi Taberna
 14.00 DKB - Irati STS
 15.00 Txeyenex - Bedarreta Taberna
 16.00 Hapoel Jamon - Diego Antonio

Iturripe B

13.00 Elisabeth - Sobre dosis de Txeira
 14.00 Lautherbrunnen - Bukanak
 15.00 Los Heredia - Los Innombrables
 16.00 Hirei - Koka Juniors

Otsailak 2, Igandea

Zaldibar

8.50 Etxe Mobil - Galartza Kont.
 10.00 Fosforos - La Mosca Gao
 11.00 Adelaida Aldibi - MSM Ing. Integral
 12.00 Cerveceria Leintz - Insert Coin
 13.00 Pepelus - ZZPPW7

Iturripe A

11.00 Pipwhis - Lorategi
 12.00 Tronkoteak - Nuevo Taberna
 13.00 Oñaniereng - Alai Gozokiak

FERNANDO GOMEZ-ACEDO (FAGOREKO GERENTEA)

“Lehian kooperatiba iz

Fagor Elekatresnak-ek gerente berria du. Fernando Gomez-Acedo da bera, jaiotzez bilbotarra eta Gasteizen bizi dena. Bilbon Injenerutza ikasketak egin zituen, 5 urtez beste enpresa baten lanean ibili eta gero, Fagorren sartu zen orain 18 urte. 45 urteko gizon honek, aipatutako denboran hainbat lan desberdin bete du kooperatiban.

- Nola ikusten duzu kooperatibismoa ekonomian kapitalismoak agintzen duen mundu honetan?

- Beharbada mugimendu kooperatiboaren sorkuntzan kapitalismoaren alternatiba izateko ideia hor egongo zen, baina argi dago gure esperientzia ezin dela erraz eraman beste toki batzuetara. Uste dut ia errepikaezina dela, eta ez dut uste mundua aldatzeko gaitasuna dugunik. Mundu honek

baditu araudi batzuk, kapitalismoa, merkatuaren legea... eta kooperatiben barne-araudian dago diferentzia, gure legeak, funtzionamendu arauak, bazkideen jabetza, partizipazio moduak....

- Beraz, merkatuaren lege-
ra makurtu beharko du kooperatibismoak.

- Linea zuriko elektrotresnen errekonbertsioa egin zenean, oraindik Europar Bata-sunean sartu barik geunden, eta hiru talde geratu ziren estatu-
lantegi txiki asko itxi eta gero: talde euskalduna, Balay-Super Ser taldea, eta gero talde kataluniarra. Europar Bata-sunean sartu eta gero, Bosch-

eko alemaniarrek Balay eta Super Ser erosi zuten eta kataluniarren taldea Electroluxek. Orduetik multinazionalekin lehian ari gara. Lehia egin behar dugu eta hor barruan kooperatibista izaten jarraitzen dugu, baina batez ere geure egituran.

- Nola ikusten duzu lanpostuen behin behinekotasuna kooperatibetan?

- Taldean behin behineko 200en bat langile izango ditugu, 3.300 lanpostutik. Gure filosofia, lana finko samarra denean, bazkideak egitearena da. Behin behinekotasuna, salmenten araberako kontua izaten da, eta hori gure bazkideek oso ondo ulertzen dute. Salmenten gorabehereri egutegi mugikorrek edo behin behineko langileekin egiten diegu aurre, baina ahaztu barik finkotasunaren aldeko filosofia.



“Taldean 200en bat behin behineko langile izango ditugu 3.000 lanpostutik. Gure filosofia bazkideak egitearena da”

izten jarraitzen dugu”

- Orain urte batzuk Fagor punta puntan egon zen, baina azkenaldian ematen du lan gutxirekin dabilela. Zein da benetako egoera? Hain finkatuta egonda, normala da horrela gorabeherak egotea?

- Fagor, oraindik estatuko liderra da. Orain urte batzuk egoera erosoagoa zen; orain lehiakideak handiagoak dira, gogorragoak, baina hor gaude. Estatuan independente garen bakarrak gara, eta gure asmoa bide horri eustea da.

Lan gorabeherak? Boladak egoten dira, eskariak gorabeherak izaten dituztelako. Produktzioa salmentei egokitu behar izaten dugu, stock-ak ere kaltegarriak direlako, horregatik ditugu egutegi mugikorak.

Benetako egoera? Azken hiru urteetan, urtero

%20an gehitu ditugu esportazioak, baina barne merkatua ez da hazi, eta frigorifikoen arloak ustekaberen bat edo beste eman du. Egoera gogorra da, baina ez dramatikoa.

- Esaten da krisia amaitu dela. Egia da?

- Azkenaldian kontsumoa ez doa ondo, ez du tiratzen, kontsumitzaileek gastatzeko beldurra dute. Esango nuke krisia ez dela krisia, iraunkor egin den egoera baizik. Makroekonomia errekuiperatu egin dela? akaso, baina kontsumoa ez, 1994. urteko eskaeratik

behera gaude, eta kompetentzia maila handiagoarekin.

- Daewooren irenstea zabaldu zuen egunkari batek joan den astean bertan...

- Gezur handia izan zen. Daewoorekin ez dugu berba ere egin. Guretzat lehiakide bat besterik ez da. Ez dakit nondik irten zen. Zein asmekin? edozein gauza esanda ere, motz geratuko nintzateke. Gezurak egoenezina sortu zuen eta enpresan sorpresaz eta haserre hartu zen.

- Berria gezurra izan arren, eta gauzak nola dauden ikusita, noizbait gertatuko da halakorik?

- Daewoorekin seguru ezetz. Sekula ez da saltzeaz hitzegin, beste kontu bat da puntualki beste norbaitekin elkartzea, Vaillantekin egin den moduan.

- Nork bota zuen hor lehen harria?

- Orain hiru urte etorri zen Vaillant gaia begiratzera, eta proiektua iaz gauzatu zen. Beraiek koste arazoak zituzten eta horregatik jo zuten guregana. Guretzat ona da, European berogailuak egiteko bi marka besterik geratuko ez direlako. Momentuz ez dugu beste proiekturik. Noizbait izan genezake zerbait, baina gertatu dcna gertatu ondoren seguru Daewoorekin ezetz.

- Badu Fagorrek nazioarteko enpresa erraldoiei aurre egiteko gaitasuna?

- Lehiatzen ari gara, orain hamar urtetik gainera: Electrolux, Bosch, Whirpool, Daewoo... gure lehiakide dira. Aukerak? Egia da multinazionalak bizitza konplikatu digutela, baina egin beharrekoa gure esku dago. Orain arte lehiatu dugu eta aurrerantzean ere lehiatuko dugu. ■

“Orain urte batzuk egoera erosoagoa zen; orain lehiakideak handiagoak dira, gogorragoak, baina oraindik hor gaude”



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 79 27 27 / 79 13 55

Monterrongo hemeroteka erakusketak egiten diren tokian jarriko da

Monterrongo bigarren pisuan dagoen hemerotekak leku berria izango du. Beheko solairuan erakustoki moduan erabiltzen den gunera pasatuko da hemeroteka zerbitzua eta ondorioz toki horretan erakusketak egiteari utziko zaio.

Hemerotekaren leku aldaketa iaz egitekoa bazen ere eta horretarako 96ko aurrekontuetako diru kopuru bat onartu bazen ere, atzerapen ondo-rioz 97ko lehen se hilabetean egitea espero da.

6 LAGUNENDAKO TOKIA

Gaur egun hemerotekan sei lagunendako tokia baino ez dago, hau da, mahai bakar baten inguruan dauden sei ezarleku besterik ez. Espazio txiki horrek hemerotekak duen arrakastarekin kontrastatzen du, izan ere, Mertxe Perez de Ciriza liburutegiko arduradunaren hitzetan, jende askok erabiltzen du egunero hemeroteka egunkariak lasai irakurtzeko eta aldizkariak ikusteko. Irakurle askok zutik geratu behar izaten du irakurtzen, ezarleku bat libre geratu arte.

Espazio txiki horregatik eta hemerotekak arrasatearren artean duen harrera onagatik, zerbitzu horrek toki handiago bat behar zuela erabaki zen aspaldi eta horregatik Monterrongo beheko solairuko gunea hemeroteka bihurtzea eraba-



Gaur egun 6 lagunendako tokia dago Monterrongo hemerotekan; berria 20rendako egongo da.

ki zen. Bestalde, Mertxe Perez de Cirizaren esanetan, jendeak esaten du hemeroteka ez dagoela leku onean: "jendeak dio liburutegitik oso gertu

dagoela eta horrek akademi-kotasun itxura ematen diola hemerotekari. Esaten dute hobia litzatekeela Monterrongo sarreran egotea".

Hemeroteka beheko solairuan jartzen denean, 20 lagunendako edo gehiagorendako tokia egongo da. Altzari berriak jarriko dira eta horrela, oraingo hemerotekan ezin jar daitezkeen aldizkari eskaintza osoarendako tokia egongo da. Lurra berriz parke flogarriaz estaliko da baina erdian dagoen hezurrez egindako koroaren gainean kristala jarriko da, begibistan geratu dadin.

100 TITULU DESBERDIN

Mertxek kalkulatu duenez, 100 titulu desberdin daude hemerotekan irakurgai. Eguneroko 8 egunkariez gain, Eusko Jaurlaritzatik bidaltzen dituzten 22 aldizkari, Madrilgo Kultur Ministeritzatik bidalitako 40 aldizkari eta liburutegikoek erosten dituzten 24 publikazioak irakur daitezke. Horiei gehitu behar zaizkie Arrasate Press eta antzeko herri aldizkariak.

Egunkaritan berriz, azken bi urtekoak dituzte eta hilero berrituz joaten dira; beraz, orain hemerotekan aurkitu daitezkeen egunkari zaharrenak 1995eko otsailekoak dira.

Hemeroteka beheko solairura noiz pasako den jakite-rik ez badago ere, Jon Garai kultura teknikariak udarako eginda egotea posible litzatekela esaten du.



Erakusketak eta almazena:
Kale Txiki, 3 - behea
Tel.: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE

Pavimentos AGR

EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA

● Txitxinpe ●

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak

Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 79 67 76

SERGIO LEKUONA

“Albokak ez du trikitixa beste jende mugitzen, ez dago modan eta”

Sergio Lekuona 22 urteko gasteiztar gazteak alboka ikastaroa emango du Arrasaten otsailaren 15etik ekainera bitartean. Lau hilabetetan larunbatero arituko da hainbat arrasatearri euskal instrumentu zahar horri doinua nola atera irakasten. Sergio Nekazal Injinerutza Teknikoa ikasten dabil eta duela 5 urte hasi zen alboka ikasten.

— Alboka jotzea afizio bat baino ez da?

— Bai, orain dela 4 edo 5 urte hasi nintzen. Egia esan musika betidanik gustatu izan zait. Behin aldizkari batean albokari buruzko artikulu bat irakurri nuen eta instrumentu berezia iruditu zitzaidan. Instrumentu bereziak oso gustoko ditut eta gainera, hau gurea izanda, Euskal Herrikoa, are gehiago. Horrela hasi nintzen.

— Non ikasi duzu jotzen?


— Gasteizko folklore akademian, Karlos Zubijanarekin.

— Talderen baten jotzen duzu?

— Bai, batzutan deitzen digute herrietara jotzera joateko baina erakustaldi moduan.

— Urte batzuk daramatzazu alboka ikastaroa ematen Arrasaten. Arrasatear asko animatzen da ikastera?

— Egia esan, gero eta jende gehiago etortzen da baina ez dago trikitixa bezain modan. Akaso Ibon Koteronen, Kepa Junkerarekin jotzen duen albokalariaren disko berriak arrakasta izaten badu, alboka modan jarriko da baina momentuz ez du trikitixak beste jende mugitzen. Modak eragin handia izaten du, irratian



entzuten denaren arabera instrumentu bat edo beste jartzen da modan.

— Ze adineko jendea hurbiltzen da alboka ikastaroetara?

— Jende gaztea, 15-25 urte arteko jendea.

— Horrelako ikastaroetan alboka ondo jotzera heldu daiteke?

— Oinarrizkoena ikasten da. Abesti pare bat eta arnasketaren teknika. Errementari dantza ere irakasten dut.

— Solfeoa jakitea beharrezkoa da?

— Ez, baina lagungarria izan daiteke. Alboka jotzeko afizioa, gogoa eta dedikazioa baino ez da behar.

— Nola animatuko zenituzke arrasatearrak alboka ikas dezaten?

— Esango nieke alboka jotzea erraza dela eta gero herrietan jotzen ibiltzeko aukera ematen duela. Oso ondo pasatzen da albokarekin.

aste gazte

■ SEXUALITATEA

• “Antikonzeptzioari buruzko informazio kanpaina” mar-txan dago, gazteei zuzenduta. Orientazio Sexualeko Bulegoan (Garibai Etxean, 1. solairuan). Astelehenetan 6etatik 8ak arte eta ostegunetan 3.30etatik 5.30ak arte.

■ BEKAK

• “Pilar i Joan Miró” Fundazioak, ikerketa lanak burutzeko bekak kaleratu ditu, gai konkretu batzuk jorrazteko (heziketaren arloan artea bultzatzeko proiektu didaktikoak, Joan Miroren bizitza,...) Epea: otsailak 27.

■ LANA

• Mutrikuko Udalak erdi mailako teknikari lanpostu bat kaleratu du, enpresa edo ekonomi zientzietan diplomatuei zuzendua. Epea: otsailak 5.

■ IKASTAROAK

• Euskal dantzak: 10-14 urte bitartekoei zuzendutako ikastaroa otsailaren 19tik San Juanetara, astezkenetan 6.30etatik 7.30etara. Matrikula: 1.000 pta. 15 urtetik gorakoei zuzendutakoa martxoan hasiko da.

• Alboka ikastaroa: otsailaren 15etik ekainaren 20ra. Larunbat goizetan, Arrastae Musikalen. Izen emateak Gazte Bulegoan.

■ LEHIAKETAK

• “Martxoak 8” kartel lehiaketa, Arrasateko Udalak deitua. Leloa: “Martxoak 8: 365 egun”. Saria: 50.000 pta. Epea: otsailak 18.

Informazio gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 77 00 65

Otsailaren 15ean hasiko den alboka ikastaroaren irakaslea izango da.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Etxea salgai Elkano kalean. Tel.: 77 13 02.

• Etxebizitza salgai Erguinen. Tel.: 79 64 80. Gauetz.

• Pisua salgai erdialdean. 90 m². Ia berria da eta berogailu eta igogailua dauka. Tel.: 79 42 13.

2. Erosi

• Etxea erosi nahi dut Arrasaten. 100 m² inguruko. Nahiago igogailua eta berogailua izanez gero. Sarrera eguna negoziagarria. Tel.: 79 01 26.

3. Errentan emateko

• Berri berria dagoen baserria alokagai Zarimutzen (Eskoriatza), konpartitzeko ere gertu nago. Tel.: 58 50 17.

• Pisua alokagai Donostiako Egia auzoan. Tel.: 79 25 16.

• Pisua alokatzen da Iturriotz kalean. Tel.: 79 18 50.

5. Etxe konpartituak

• Alokatzeko edo konpartitzeko pisu bila nabil. Tel.: (945) 42 00 13. Gaspar.

GARAJEAK

7. Saldu

• Larrean garaje itxia salgai. Tel.: 79 92 31 / 79 23 26.

• Zarugalde 3an garaje plaza saldu edo alokatzen da. Tel.: 79 23 06.

• Roneoko etxeetan garaje itxia salgai. Tel.: 79 18 70.

9. Errentan emateko

• Garaje itxia alokagai Roneon. Dei egin gauetz 10etatik aurrera. Tel.: 79 19 64.

• Lehengo Villa Amparo zenaren tokian garaje itxia alokagai. Tel.: 79 19 62. Gauetz.

10. Errentan hartzeko

• Garaje txiki bat behar dut alokagai Arrasaten. Tel.: 79 22 92.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

ARRASATE PRESS. Azoka, z/g. 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Press ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

LOKALAK

12. Saldu

• Martxan dagoen negozio salgai. Tel.: 79 00 00.

• Erguin kalean lokala salgai. Tel.: 79 18 70.

14. Errentan emateko

• Martxan doan harategia eskuz aldatzen da. Tel.: 79 28 01.

• Biltegi bezala erabiltzeko 34 m²ko lokala alokagai. Tel.: 79 20 48.

15. Errentan hartzeko

• Biltegi moduan erabiltzeko 100 m²ko lokal baten bila gabiltza. Kamioi bat sartzeko modukoa izan behar du. Tel.: 77 10 50. Jabi.

16. Bestelakoak

• Erdiko kalean lokal komertziala traspasatzen da. Tel.: 78 18 00.

• Lokal komertziala eskuz aldatzen da, beheko eta lehenengo solairua.

Tel.: 79 18 00 / 77 08 97.

LANA

17. Eskaintzak

• Esperientziadun neska kamarera lanetarako gertu. Tel.: 79 61 16.

• Emakumea gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 07 73.

• Neska euskalduna gertu dendari edo kamarero lanetarako. Tel.: 79 37 68.

• Neska esperientziaduna etxeko lanak egiteko edo agureak zaintzeko gertu. Tel.: 79 27 48.

• Neska euskalduna gertu umeak zaintzeko. Tel.: 79 04 10.

• Neska gertu umeak edo pertsonak nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 79 31 44. Gauetz.

• Emakumea gertu orduka etxeko lanak egin edo pintxe bezala lan egiteko. Vicen. Ferrerías kalea, 30-2. solairura hurbildu.

• Emakumea orduka lan egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Tel.: 79 23 54.

• Esperientziadun neska etxeko lanak orduka edo egun osoz edo umeak zaintzeko prest. Tel.: 79 31 44.

18. Eskaerak

• Esperientziadun neska euskalduna behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 77 02 81.

• Neska edo emakume euskalduna behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 77 07 74.

• Umeak zaintzeko neska behar da. Tel.: 79 90 94.

19. Bestelakoak

• Lanak makinaz pasatzen ditut. Euskaraz edo gazteleraz. Tel.: 77 11 84.

• Negozioa eskuz aldatzen da. Zuzenbidea: Erdiko kalea 48.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Klase partikularrek emango nituzke. Tel.: 77 04 98.

• Titulodun eta esperientziadun neska LH, DBH, REM naiz BUPEko klase partikularrek emango lituzke. Euskaraz eta erdaraz. Tel.: 79 08 59.

• Kontabilitate klase partikularrek ematen ditut. Tel.: 79 38 91.

• OHO, DBH, REM eta Logseko klase partikularrek ematen dira. Tel.: 79 98 68 / 79 40 57.

• Irakasle titulodunak Lehen Hezikuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezikuntza klase partikularrek ematen ditut. Tel.: 79 94 04.

• Guraso bazara eta zure seme-alaben eskolako lanetan laguntzeko astirik ez baduzu, lizentziadun, EGADunak eta ingelesa dakienak klase partikularrek ematen ditu. Tel.: 79 11 99. Itziar.

21. Eskaerak

• Marrazki geometrikoko klase partikularrek hartuko nituzke. Tel.: 79 83 33.

• Alemanezko klase partikularrek hartuko nituzke. Tel.: 71 48 90.

• Bigarren BUPEko ingelesezko klase partikularrek hartuko nituzke. Tel.: 79 68 75.

• 3. BUP mailako matetatika irakaslea

behar da. Tel.: 79 20 24.

- Matematika irakatsiko didan irakasle partikularra behar dut. Ikasgaiak: algebra, analisia, logika matematikoa eta matematika. Tel.: 79 77 59. Gaueko 10.30etatik aurrera. Ferando.

MOTORRA

23. Saldu

- Ford Fiesta salgai. Tel.: 79 00 53. Gaeuz.

- Seat Malaga salgai. 98ra arteko ITVaz. Tel.: 79 78 10 / 77 14 04.

- Renault 18 GTS salgai. Matrikula: B-DT. Zilar kolorekoa. Konponketak behar ditu baina ondo dago eta merkea: 30.000 pta. ITV-a urrira arte pasatuta dauka. Dei egin eguerditik gauera 71 63 05.

- BMW R-65 motorra salgai. Txuria, errubera berri berriak. Oso egoera onean. 260.000 pta. Dei egin 79 97 60 telefonora eta utzi mezua, nik deituko dizut.

- Furgoneta-etxea salgai. Jasotzen den teiltatuaz. Guztiz jantzita eta extra askorekin. Tel.: 76 04 47. Gaeuz.

DENETARIK

26. Saldu

- Mendiko elurretako plastikozko botak salgai. AFS 101 Carboni Fiber-Asolo (39. zenb.) eta AFS 102 Fiber-Glass (44. zenb.). Tel.: 79 22 99. Gaeuz.

- Neskatilendako bizikleta tolesgarria eta 8-12 urte bitartekoendako liburu sorta oso merke salgai. Tel.: 79 82 47.

- Goi kargako garbigailua salgai. Tel.: 77 05 77.

- Kerosenozko berogailu japoniarra salgai. Tel.: 79 03 67.

- Egongelako altzariak, egoera onean, salgai. Prezioa negoziatzeko. Tel. 79 01 33 edo 989-76 49 66.

- Astrajolas ordenagailua salgai, 100 jolasekin, oso merke. Tel. 79 34 79.

- Egongela eta jangelako altzariak saltzen ditut. Zumezkoak dira eta egoera onean daude. Tel.: 79 71 35. Gaeuz.

- Likidazioagatik argiontzi eta mahaitxo lanparak salgai. Tel: 79 25 96.

- Bi mostradore eta bitrina salgai.

Tel: 79 99 41 edo 79 25 26.

- Fender gitarra anplifikadorea salgai. 38 W.A. Reverd. Etxean erabili dut bakarrik. 20.000 pta. kableak eta "chorus" pedala barne. Tel: 79 25 10. Igor.

- Eskalatzeko Boreal markako katu hanka salgai. 43-44 zenbakia. Oso gutxi erabilia. 5.000 Pta. Tel: 79 25 10. Igor.

- Compact irakurle bi salgai. Tel: 79 76 88. Prezio interesgarria.

- Fruitadenda bateko apalak salgai. Benetako prezioa 1.500.000 pta. ko da baina nik 300.000 pta. tan saltzen ditut. Berri berriak daude. Tel. : 79 37 82.

- 1.05 m. ko ohea koltxoi eta guzti, sekterra eta mesanotxea salgai. 15.000 pta. Tel.: 79 78 10 / 77 14 04.

- Fibro markako bi berogailu salgai. bakoitzak 20.000 pta. tan. Tel.: 77 07 74.

27. Erosi

- Ordenagailuendako 14 pulgadako pantaila erosiko nuke. Tel.: (945) 44 50 05.

- Auto barruan umea eramateko aulkitxoia erosiko nuke. Gaueko 8etatik aurrera. Tel.: 79 23 69.

- Kitarra elektrikoa eta anplifikagailua erosiko nitzuke. Tel.: 74 37 23.

- Bigarren eskuko seaska bat egoera onean erosiko nuke. Tel: 77 12 36. Deitu gaueko 8.30etatik aurrera.

32. Aurkitu

- Urtarriaren 15ean, asteazkena, Zaldibarren umeen bizikleta bat galdu bazenuen joan zaitetz Ertzaintzara jasotzera.

33. Bestelakoak

- Dante, Petrarca edo Boccaccioren buruzko lan bat behar dut Unibertsitateko. Tel.: 79 82 42 / 79 28 71. Igor.

HARREMANAK

34. Agurrak

- Alaike eta Oltz: Adinez nagusi zarete eta, ea poltsikoa astindu eta zerbaitea gonbidatzen nauzuen. Mai.



LORAMENDIN

- Forro polarrak
- Txamarrak
- Txandalak
- Sudaderak
- Zapatilak eta abar

% 50

ZATOZ!

San Andresen eta Garibaien

■ Marga Merkader

TXIKITXU-ARROSTAITZ DANTZA TALDEKO IRAKASLEA



Marga Merkader 1949ko abuztuaren 1ean jaio zen Arrasaten. Monjetan eta Eskola Politeknikoan egin zituen ikasketak. Ezkonduta dago eta seme bat eta bi alaba ditu. Margak Txikitxu-Arrostaitz taldekoei euskal dantzak irakasten die. "Txantxote" ezizenagatik ezaguna da ere; bere aitaren familiaren aldetik datorkio.

1. Zein da zure horoskopoa? Leo.
2. Sinestuna zara? Bai.
3. Animalia bihurtzekotan? Zaldi.
4. Zure akats bat/gauza on bat? Momentuko genioa/Hori besteek esan behar...
5. Zerk lotsarazten zaitu? Erridikuloa egiteak.
6. Amets bat? Euskal Herria aske ikustea.
7. Zer kenduko zenuke mundutik? Gerra eta miseria.
8. Gertakizun historiko bat? Franko hil zen eguna.
9. Nor miresten duzu? Nire amama.
10. Zeri diozu beldurra? Iluntasunari.
11. Zertaz damutzen zara? Ez dut atzera begiratzen.
12. Negar egin duzun azken aldia? Gabonetan.
13. Zer falta zaio Arrasateri? Gazteendako lokalak.
14. Eta zuri? Denbora.
15. Lanbidez aldatzekotan? Erizain.
16. Arrasateko gustoko toki bat? Santa Barbara.
17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Goizero lehenago jeikitzea.
18. Zein egunkari irakurtzen duzu? Egin.
19. Gustoko janari bat? Arraina.
20. Liburu on bat? Ez dut ohiturarik liburuak irakurtzeko.
21. Filmerik onena/tzarrena? *Bailando con lobos*/Asko daude.
22. Musika talderik onena/tzarrena? Xabier Lete/Ez dakit.
23. Telebistako programarik onena/tzarrena? Dokumentalak/*El Semaforo*.
24. Egin dizuten oparirik politena? Opariak denak dira politak.
25. Denbora librea zertan pasatzen duzu? Mendian eta lagunekin kafea hartzen.
26. Oporretarako toki bat? Iratiko basoa.
27. Etxeko lanik gorrotagarriena? Plantxa egitea.
28. Gomendio bat? Norbera den modukoa izatea beti.
29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza? Familiagatik.
30. 200 milioi irabaziz gero? Lehenengo irabazi eta gero...



GRONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoa
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxe: 77 14 76



Langile finkoak eta ikasleak biltzen dira Alecopen.

Alecop, ikasleen lan munduko lehen harremana

• 1965. urten sortu zen. 31 ikasle izan ziren sortzaileak, Jose Maria Arizmendiarraren ekimenez.

• Gaur egun, Alecop 705 Eskola Bazkide Laguntzailek eta 51 Lan Bazkidek osatzen dute.

• Bi produktu mota egiten ditu: instalakuntza elektrikoak eta ekipamendu didaktikoak.

• Bere bezero garrantzitsuenak honako hauek dira: Instalakuntza elektrikoe-

tan: Fagor, Albilux, B.S. Elektrotresnak, Mayc, Chaffoteaux, Vestfrost, Azkoyen....

Ekipamendu didaktikotan: Zientzia eta Hezkuntz Ministeritza eta Autonomiatako Kontserjeritzak, eskola pribatuak....

• Kooperatiba honen produktuak, kanpora doazenak, gehienbat Ipar Amerika eta Frantzia aldera joaten dira.

• Urteko fakturazioa gutxi gorabehera 3.500 milioi-koa izaten da.

• Alecoperen asmoak gero eta gehiago haztea eta zabaltea eta ahalik eta ikasle kopuru handiena lan munduarekin kontaktoan jartzea dira.

• Lantegiko Zuzendaritza gerenteak eta hamar zuzendarik osatzen dute; Kontseiluko Errektorea, berriz, lehendakariak eta beste zortzi bazkidek. Jakina denez, Alecop MCCren partaidea da, industri dibisioan, osagai eta zerbitzuen barnean dago, KES-LAN agrupazioan.

Euskaldunak eta Osasuna

Berakatz

Landare estimatua izan da betidanik, "hamaika gaitzen kontrakoa".

Urteko landarea da, orri zurizkaz eta lore ugariz jantzitakoa. Berreundik gora berakatz mota ezagutzen dira, eta ezagunena gure

ortuetan landatzen dena da.

Usain latzekoa da, baina sukaldean janaria gozatzeko dezentet erabiltzen dena. Osagai bezala, berriz, ez ditu gaitasun makalak eta horregatik ikaragarri erabilira eta estimatua izan da.

Erreumaren kontra ona da, tentsioaren kontra, eztularen eta minbiziaren kontra, handitutako sanen eta odolbatuen kontra, pasmoari aurre egiten dio, zahartzaroan bihotzari lagun egiten dio eta abar.

Euskararen Txokoa

Astearen egunak

Hona hemen, astearen egunak, batuan eta Arrasateko euskeran:

Batuan: astelehena, asteartea, asteazkena, osteguna, ostirala, larunbata, igandea.

Arrasaten: astelehena, marti(t)zena, eguaztena, eguena, eguakotxa, zapatua, domeka.

Hona hemen hilabeteen izenak batuan eta beste modu batean, gure lexikoa aberasketako.

Urtarrila, hilbetza.

Otsaila, zezeila, kataila (fam).

Martxoa, martixe, epaila.

Apirila, jorrraila.

Maiatza, loraila.

Ekaina, garagarrila.

Uztaila, garagarrila, gari-la.

Abuztua, agorrrila.

Iraila, buruila.

Urria.

Azaroa, hazila.

Abendua, gabonila.

Eguna zelan idatzi euskaraz:

Arrasaten, 1997ko urtarrilaren 31ean.

Bihar, hilak 1, bilera egingo dugu elkartean.

Bihar, otsailak 1, bilera egingo dugu elkartean.

Urtarrilak 31 ditu gaur (esateko gaur urtarrilaren 24a dela).

**Karmelo Uribarren
eta Joxerra Agirreurreta**

■ **Horoskopoa**

- **Aries** Agure baten erritmoan ibiltzen zara. Pila faltan?
- **Taurus** Gauzak bizkor egiten dituzu baina zelan?
- **Gemini** Astelehenetan izaten duzun aurpegiak dena erakusten du.
- **Cancer** Asteazken zehar lotsatuta egoten zara baina astebukaeran...
- **Leo** Orain manga motzetan ibiliz gero, zer jantziko duzu udan?
- **Virgo** Duzun planarekin egun guztiak berdinak iruditzen zaizkizu.
- **Libra** Bizikletan ibiltzea erraza da baina ez al da berandutxo?
- **Scorpio** Azterketak gainean eta zu ikasteko asmo barik.
- **Sagitaris** Exagefatzea gustatzen zaizu edo horrelakoa zara?
- **Capicorn** Herriko famatuena zarela uste duzu baina ez da hainbesterako.
- **Aquarius** Triste esnatzen zarenean gauzak hobeto ateratzen zaizkizu.
- **Piscis** Ilea mozten ez baduzu pizti itxura hartuko duzu.

■ **Gurutzegrama**

1	2	3	4	5		6
7					8	
9					10	
11				12		
13			14			15
16		17		18		
19						

JUAN BAUTISTA AGORRIA

Horizontalak 1. Industria, N. eta A. sailburua. 7. Ahozkatu. 8. Zenbaki erromatarrez 51. 9. Propaganda politikorako mintzaldi. 10. Txakur. 11. Jainkosa grekoa, Zeusen alaba. 13. Neona. 14. Harrera. 16. Okitu aditzaren infinitiboa. 18. Fidel Castoren anaia. 19. Voltaren pilaz esaten da.

Bertikalak 1. Errusian erreinatu zuen dinastia. 2. Zeregin. 3. Briskaren antzeko kartajoko mota. 4. Ahalmen edo indarrik eza. 5. Gin, edari alkoholikoa. 6. Zirkunferentzi formako objektu. 8. Esnatu aurretik. 12. Aste-kariko bokalak. 15. Zuek eta ni. 17. Israelgo matrikula plaketan.

Horizontalak: 1. Romanov. 2. Egitoko. 3. Tute. 4. Ezina. 5. Ginebra. 6. Zirgillo. 8. Lo. 12. Aeat. 15. Raul. 19. Voltaiko.
Bertikalak: 1. Retegi. 7. Oguzi. 8. LL. 9. Mitin. 10. Or. 11. Aienca. 13. Ne. 14. Abegi. 16. Okt. 18. Guk. 17. Il.

EKINeko ikastaroak

■ **GESALIBARREN**

- Astearteetan, arratsaldeko 6etatik 8etara **sukaldaritza** (hasiera otsailaren 4an).
- Ostegunetan, arratsaldeko 3etatik 5etara **eskulanak** (hasiera otsailaren 6an).

■ **SAN ANDRESen**

- Asteazkenetan, arratsaldeko 3etatik 5etara **euskal dantzak** (hasiera urtarrilaren 29an)
- Ostegunetan, arratsaldeko 3etatik 5etara **sukaldaritza** (hasiera otsailaren 6an)

■ **AEDko lokalean**

- Astearteetan, 3.15etan **saloi dantzak** (hasita)
- Astearteetan, 5.30etan **euskal kantak** (hasita)
- Asteazkenetan, bi ordutegi, 3.30etan edo 6etan **eskulanak** (hasiera otsailaren 12an)

Izena emateko, deitu lehenbailehen 77 12 28 telefonora arratsaldez.

Antolatzaileak



Laguntzaileak



ARRASATEKO UDALA

Emakume Saila ■



Otsailaren 10etik aurrera ohiko programazioa ATBn

Otalora 31ko egoitza berria txukuntzeak lan handia ekarri die ATBkoei baina tira, otsailaren 10ean ohiko programazioari ekingo zaio: Berriak, Mondrasport, Astebete, Kukaraxa Motel... Egunotan berriz, ATBn emisio frogak egiten ari dira seinalea etxeetara nola heltzen den ikusi ahal izateko eta bitartean, aurrera darraite lokal berriko obrak. Argazkian ikusi daitekenez, galdaragi-leak buru belarri ibili dira platoko sabaian fokoak zintzilikatzeko burdinezko sarea jartzen.



Astebete barru ATBko platoa prest egongo da emisioekin hasteko.

Arrasate Irratia FM 107.7

Egunero

9.00 Albisteak
9.30 Goizoro magazina
14.30 Bixau orduan

Astelehena

22.00 Caravanserai
musika saioa.

Asteartea

22.00 Euskal Festa.

Asteazkena

22.00 KK2A

Osteguna

21.00 Adi Egon
22.00 Txerrendantza

Ostirala

22.00 KGB informatika saioa

Larunbata

9.30 Jailarai umeendako saioa.
11.00 Zoroklasikoak
musika klasiko saioa.

Otsailak 13: Gogoan izateko data bat

Aurtengo otsailaren 13a egun berezia izango da Arrasate Press eta ATB biltzen dituen elkartearantz. Alde batetik ATBk bere 7. urteurrena ospatuko du eta bestalde, Arrasate Pressekin batera, Otalora kaleko egoitza berriaren inauguraketa egingo da. Jakina denez, ARKOk duela aste gutxi estreinatu du Otalora 31ko egoitza hainbat urtetan lokal duin baten zain egon ondoren eta horregatik inagurazioa egingo da otsailaren 13an. ATBk bere aldetik inagurazioaren zuzeneko emisioa eskeiniko du eta herriko etxe guztietara helduko da horren berri. Otsailaren 14an berriz, egoitza berriko atea herritar guztiendako egongo dira zabalik nahi duenak bisita dezan.



Nerea Zubiete, Goizoro magazineko kazetaria.

■ ATBko emisio frogak

	3 ASTELEHENA	4 ASTEARTEA	5 ASTEAZKENA	6 OSTEGUNA	7 OSTIRALA
8.00	<i>Ibilixan Dabilena</i> Joseba Egibar Antartida	<i>Ibilixan Dabilena</i> Gurutze Irizar Sahara	<i>Ibilixan Dabilena</i> Xabier Albistur Afrika	<i>Ibilixan Dabilena</i> Agustin Goenaga Bolivia	<i>Ibilixan Dabilena</i> Ion Arretxe Txina BTTan
8.30	Zinea <i>Rain Man</i>	Kontzertua <i>Beethovenen 9. sinfonia</i>	<i>Play Back Jaialdia</i> 1994	<i>Play Back Jaialdia</i> 1995	<i>Play Back Jaialdia</i> 1996



Zerrajera lanean ari ziren argazkiak agertzen diren gehienak, baina ez denak. 1940. urtearen inguruan ateratako argazkia da, ikusten denez Gernikako Arbolaren

aurrean. Egunpasa joaten ei ziren noiz behinka Zerrajerakoak, langileak bildu, eskursioa antolatu, autobusa hartu eta egunpasara hortik zehar.

Seguruen argazkiko gehienek ordurako ondo

baino hobeto ezagutuko zuten Gernika, baina gerra bukatu zela hainbeste urte pasa ez zirenez oraindik sinbolo gogorra zen Gernikako arbola. Horregatik, sarri samar antolatzen ziren harantzako ibilbideak.

 Urtea: 1940. ingurua
 Argazkia: Jose M. Lasagabaster
 Informazioa: Miguel Arrieta.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.
Lorazaintzako mantenimendua orohar.
Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



4 errealitate

erronka 1

Deba Garaian etorkizuna eraikitzen

**almen
san frantzisko xabie
san viator
umezaintza**

MATRIKULA
ZABALIK
otsailaren 17tik
martxoaren 7ra

zatoz ezagutzera

- zuk eraiki duzun eskola: ikastola
- guraso, langile eta erakudeen partaidetza
- etengabeko hobekuntzako konpromezua
- autonomia: beharrei erantzuteko gaitasun osoa

Deba Garaian haur hezkuntzatik unibertsitate mailarainoko eskaintza integrala, propioa eta zabala ematen dakiten zentroak



Hezibide bailarari hezkuntz
egitura kooperatibo aberatsa
ematen dion elkarte



IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

Sukalde altzari berri eta eksklusiboak.

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Plaza, z/g
ARRASATE • Tfnoa: 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52
ARRASATE • Tfnoa: 79 99 42

FAGOR 